

anaitasuna

1981.eko - IRAILA.URRIA - 414. ALEA -100 PZTA.



"GUERNICA", AMNISTIA BAI
PUERTO, SORIA, CARABANCHEL... EZ

GERO ETA URRINAGO, BAINA GERO ETA HURBILAGO

500 euskal atxilotu politiko dago gaur egun Espainiako presondegietan. Herri ttiki batentzat kopuru itzela.

Eta herri ttiki honen askatasun handiagorik eskatu duten guztiek elkar laguntza osoa merezi dute, **geu haiekin gaudela, haiek gurekin direla erakusteko**. Gizarte honen atal bi-ziak direla erakutsi behar zaie eta zaigu. **Kemena denok behar dugu.**

Elkarren arteko laguntza ttiki ttikiena ere balio-tsua bihurtzen da borondate osoz egiten denean. Gainera maitasuna edo eta adore iraultzailea denean ez dago ezer txikirik.

Zuen kartak, gutunak, errebistak, liburuak eta elkarrizketa batez ere behar dute eta behar dugu. **Izen bat** hautatu dugu gartzela bakoitzean. Beraren bidez gartzela horretako **edozein presorekin harremanetan sartzeko**. Izenik ez badakizu, idatzi, beraiek proposatuko dizkizute izenok. Eta ez ahaztu...**geu gara haien itzaropena...** beraiek dira gurea.



Madrid: Centro Penitenciario Femenino de Yeserias. Arrate Mardaras Lejarreta.

Soria: Prision Provincial. Marques de El Saltillo. J. Antonio Torrealtonaga.

Madrid: Centro Penitenciario de Carabanchel. Gabriel Zubiaga.

Bizkaia: Centro Penitenciario de Basauri. Joseba Cardenal.

Cadiz: Prisión Nueva. P. Sta. María Joseba Sarrionaindia.



"EL ARBOL SEGUIRA EN PIE"

Urtero bezalatsu, Alderdi Eguna delakoaren bezperatan, jeltokideek deiadar egin dute zeren eta haien zat hain garrantzitsua den egun horretan hatzaparrak erakutsi behar baitzkie beren baseei.

Euskal Parlamentuko esanak ostera ere entzun dira Nafarroa baztertuaren landetan eta hala, kontu hoietaz eta zahatoa, tortila, txapela, ertzaingoa e.a. eramanez egun ederra eskaini diete berenei.

Bitartean, Txiki eta Otaegi gogoratu nahi zituztenek ez dute ia denborarik izan kolpeetatik ihesi aldentzeko.

Gauzak hala doaz. BAINA, IRAILEROKO OSTIKALDIAZ APARTE, ZER DUZUE EUSKAL HERRIARI EMATEKO, "BORONDATE ONA" ETA ESKUAK HUTSIK EZ BADIRA? ZUEN ESTATUTO KUTTUNETIK HONA HAUXE DUGU:

NAFARROA: Gero eta urrunago, ente autonomoa agertzen da horrez gero.

AMNISTIA: Lehen Martutene eta Nanclares, gero Soria, geroago Carabanchel, orain Puerto, bihar... auskalo.

LEMOIZ: Bukatzear dago. Euskal gobernuak ez dauka erabakitzeke ahalmenik.

EUSKARA: Gure hizkuntza eta euskal kultura, lehenaren legez. Hirugarren munduko heri baten antza daukagu. Euskal prentsarentzako subentzioak irragarriak ditugu, "Eusko Jaurlaritzako" ministrari baikoitzak bere idazkera du: bizkaiera zein gipuzkera; batua zein BANTUA. Artean partiduak "una revista abierta y agresiva" ateratzen du nazionalismoa "sendogotzeko".

EUSKAL POLIZIA: Madrilgoek nahi izango duten neurrian egingo da, ez gehiegi exijitu!

EKONOMIA: Garaikoetxeak berak esan zuenez, Euskal Herriko egoera politiko eta soziala okertuz doakigu.

Eta orain ezker abertzaleak arrazoia edukiko ote duen beldur omen zarete.

Ez, jaunak, ez. Ez duzue gauza haundirik egin "Madrilgo botak" ez baitituzue ezertxo ere egiten zuten. Herria nekatuta dago zuen loreez.

Ez oihukatu UCD eta PSOE traditu zaituztetela esanez (ZAITUZTETE, ez GAITUZTE). ESKUINA NAHIZ EZKERRA; ATZERAKOIA NAHIZ "PROGREA" UCD NAHIZ PSOE EDO TA PCE, FUNTSEAN ESPAINOLAK DIRA eta BEREN ABERRIAREN ALDE BURRUKATZEN DUTE, HORI, LENDABIZI. ETA KITTO!!

JAUNAK, EZ ESAN GAUZAK ALDATU ZAIZKIGUNIK, EZ BOTA ZERRAUTSIK ORAIN SEI URTE EUSKAL HERRIAREN ALDE HIL ZIRENON ODOLARI.

IMANOL BERRIATUA IBIETA



Ulibarri Euskaltegiko irakasleak

Agur eta atseden
Imanol jauna,
jauna baita zure lana
Min dugu zu joana
Poz zaudela etzana.

Zeure jainkoaren
lurrean etzana
Zeure euskeraren
alde joana...
Zautzana.

Ulibarri Euskaltegiko zure lagunak.

JUAN MATEO ZABALA EUSKALTEGIA

GURE EUSKALTEGIAREN ARAUTEGIA.

-1981-82 Ikasturtea Urriaren 5ean hasi eta Ekainaren azkenean amaituko da.

-Bi eratako Ikastaroak izando ditugu:
- NORMALAK (Kursoan zeharkoak). Hiru egun astean, bi ordu egunean, Urriatik Ekainera (200 ordu).
- INTENTSIKOAK (Hiru hilabete-koak). Bost egun astean, bi ordu egunean.

-Klaseak goizean, arratsaldean eta gauean emango ditugu.

-Matrikulazioa Irailaren 15etik 30era, Frantziskotarren konbentuan (irala, 8). Tfnoa. 431 19 36.

-Matrikularen ordaina ikastorduko hiru-**rogei bat** pezeta kalkulatzeko dugu.

-Taldea mugatuak.

-Euskararen Maila guztiak.

-Zuzendari: Imanol Unzurrunzaga.

Juan Mateo Zabala euskaltegiak hamar ikasgela berri (12-14 ikaslerentzat), Aretxo Nagusia (180 jesarleku), Irakasleen biltokia, Sekretaritzak, Materialdegia, zerbitzuak... eskeintzen ditu Euskararen Irakaskuntzarako. Irakasle taldea AEK barnean urteetan esperientziaduna. Irailako Frantziskotarren ardurapean.



ikas euskara korrika

Izen honen bidez, A.E.K. erakundeak (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak) Euskal Herriko lurralde guztietan Irailaren 15-etik 30-era euskarazko eskolei buruz arituko den informaketa zerbitzu publikoa kaleratzen du.

Azken rute hauetan jasandako ugaltze nabari berak, bai eskeintzen eta bai eskaeran justifikatzen du "Informaketa Zerbitzu" baten beharrezan ikaslegaiei

aukera guztien berri emateko.

Beharizan honen jabe eginik, AEK erakundeak (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak) Euskal Herrian zehar euskarazko eskolen berri eman era hedatuko den Informaketa Zerbitzu publiko bat eratu du Hegoaldeko hiriburu bakoitzean bulego bat izanik.

"Ikas Euskara Korrika" deritzan zerbitzu publiko honek Irailaren 15-etik 30-era ihardungo du toki eta telefono hauean:

BILBON: Diputazio kalea, 3-leskuma - 423.15.52.

GASTEIZEN: San Antonio, 14. 423.31.39.


IRUINEAN: Komedia kalea, 14-4. 21.23.86.

GIPUZKOAN: Palacio de la Diputación. 42.80.50.

BAIONAN: Gau eskolen elkarte 15 rue Port Neuf- 29.67.91.



- 3.or.- Artikuluburua
- 4.or.- Agiriak
- 5.or.- Aurkibidea
- 6.or.- "Guernica" zirika: Inportanteena Espainian edukitzea ote. Kilometro gutxixeagotara egon arren ere ez da gure artean. Madril "veni, vidi, vinci".
- 8.or.- IX. UEU Zenbakitan: Ez da azaren azpiko orria aste bitan 470 lanordu egitea, ez horixe.
- 10.or.- Imanol Berriatua hil da.
- 11.or.- Koordinakundea informatzen.
- 12.or.- Adarra jotzen.
- 13.or.- Urteroko iraileko kontua (Komikia).
- 14.or.- Hankaz gora.
- 16.or.- Dossier: Antzerkia.
- 21.or.- Txomin Pellen: Beti lanean, beti presente euskal kulturaren. Elkarrizketa.
- 26.or.- Euskal Unibertsitate berriaren alde
- 28.or.- UEU: Urte Osorako Ekin-tza Ugalkorra.
- 30.or.- Kirola Osasunaren Alde
- 32.or.- Euskaldunberri baten burutazioak: Euskerarik ez jakitea bizi garen Euskal Herrian azkena da, baina egin nahi eta ezin akabua.
- 33.or.- Ipuina.
- 34.or.- Erramadana: ohitura ala inposamendua.
- 36.or.- Donostia: Jazzaren urratsetatik
- 39.or.- Balearen arrantza eta "Euskera-Islandera" hiztegia.
- 40.or.- Urrezko astabelarriak.



anaitasuna

ALE HONETAN LANKIDE IZAN GARA

- I. Antiguiedad
- J.I. Basterretxea
- J.R. Bilbao
- J.R. Etxebarria
- J. Idigoras
- I. Lasa
- J.M. Pastor
- T. Trifol
- R. Zumalabe



"GUERNICA" ZIRIKA



Eraman egin dute. Zer pentsatzen zenuen, bada, gure herriarekiko erahilketa sinbolizatzen duen koadroa bertan izango genuela? Ez. Inola ere ez. Biziki maite gaituzte. Ez dute geure iraganaz paira gaitzezen opa. Gainera, El Prado-n baino hobeto gordeko den tokirik ez omen dago. Zergatik ipini behar Vascongadasetako herrixka horretan?

VENI

1.981ko irailaren hamarraren zortziak laurden guttiagotan, negoziazio estu batzu ondoren, "Guernica" k espainiar lurra zapaltzen du. New Yorktik junboa Barajasen lurreratzen da. Aireportua, polizia txen-plen. Madril alerta gorriaz dago. Espainiako bigarren errepublikak finantzatu koadro ospetsua eskuratu da. Kultur ministraria den Iñigo Cavero harroputz ageri

da. Irribarrez. "Espainiar demokrazia bakanaren" azken arantzea desagertu da Estatu Batuek "Guernica" eman dietelarik. OTANako bidea onartuz, merezia dute sarria.

VIDI

"Guernica" Madrilén. Ez dute zein tokitan jarri eztabaidatu alde aurretik erabakirik baitzeukaten. "Inportanteena —esan dute politikari gehienek—, Espainian edukitzea. Koadroa bakearen aldeko kantua da, faxismo eta gerraren basakeriak salatzen ditu eta".

Tierno Galvan-ek Espainiako irrati nazionalen aitortu zuenez, Madril dugu tokirik egokiena: "—El cuadro es universal. No tiene símbolo alguno. Por eso mismo debemos decir que no pertenece a ninguna REGION determinada. Como universal

que es debe estar en un museo universal como el de EL PRADO. Yo, como alcalde de Madrid, me enorgullezco de que tengamos aquí el "Guernica".

Eta halaxe izango da. El Casón del Buen Retiro egokitzen ari dira Picasso-ren jaiotzaren mendehurrena ospatuko duen erakusketan ipintzeko. Antologikoa izango omen da. Hantxe izango dira "Guernica" eta bere 57 bozeto. ON EGIN!!!

VICI???

Eduki ba daukazue. Zuen demokrazia indartu egin da Madrila eroateaz. Bai, Madrila. Picassok Madrilén jartzea erabaki omen zuelako. Baina, EZ OTE DA EGIA ERE ERREPUBLIKA ETA DEMOKRAZIA HELDU ARTE EZ ZUELA ERAMAN NAHI?. EZ? Orain, "errepublika" hitz horren ordez SISTEMA DEMOKRATIKO-



ARENA ipini duzue. Ederto zioen Rafael Albertik koadro horrek oraindik sentimendu eta grina asko berpiztuko zituela eta ez zela seguru egongo azpimarratzean. Nola egongo duzue beste Tejerokada bat jasoko dugunean?. FAXISTEK KULTURA ARBUJATZEN DUTENEZ, LEHENENGO EGUNEAN "GUERNICA" ZAIINTZEN ARITU ZIREN TALDE BERBEREK APURTUJO LUKETE. "GUERNICA" ETA GERNIKA GORROTO DITUZTELAKO. KOADRO BARRUAN BEREN BURUAK NABARITU DITUZTELAKO.

Urriaren 25ean erakusketa zabalduko da eta seguruen erregea handik agertuko dena. Picassoren obraz hitz batzuk esango ditu eta "Guernicaren" zentzuari lorerik goxoenak eskainiko. Baina hala eta guztiz ere, "GUERNICAREN" SINBOLOGIAK EZ DU BAT EGITE GAURKO EGOKIAREKIN, ETA HORI EDERKI DAKI-

ZUE. ERREGE HORI GERNIKAREN GENOZIDIOAREN ERANTZULEAK BERAK JARRI ZIGULAKO "GUERICAK" NEW YORKEN JARRAITU BEHAR ZUEN. Eta egunen baten handik higitzeko baldintzak emanez gero, Gernika gurera ekarri. KOADRO HORI GERNIKAREN HILKETARENA BAITA. Picassok denbora tarte bat itxadon zuen bere obra egin aurretik. Gernika bonbartzatu zutenean, SORTZEN HASI ZEN. Lehenagoko bonbaketak ez zituen kontutan hartu Errepublikak agindurikoa betetzerakoan. Gernikakoak unkitu egin zuen. "GUERNICA" unibertsal da, jakina, baina hala ere ekintza konkretu baten basakeriaz oinarritzen da, Gernikan gertatuarenaz, hain zuzen ere. Bestela, ZERGATIK "GUERNICA" IZENA, TIERNO JAUNA?


Koadroa Madrilén geratuko da. Nahi beste oihu eginda ere ez diguzue emango.

Gure herrian egonez paralelismo antzeko zertxobait ikus genezake eta ez duzue gu hortaz konturatu nahi. Masakrearen lekutik at hotzago egongo gara eta ez dizkigu gaur egungo arazoak gogoraraziko.

Ezta, Calvo Sotelo jauna?

Hilabete batzu barru euskaldunontzako txarter merke batzu antolatuko dituzue, geure historiaren irudia MADRILEN ikus dezagun. Hori pasatu arte, Puerto de Santamaríarantz abiatzean eskala egingo dugu eta El Pradon IRAGANA ETA ORAINALDIA BATERA DOAZELA IKUSIKO ERE. IZAN ERE, ZALDIK - KOADROKO INOZENTEAK, EUSKAL HERRIAK - GARRAISIKA DIRAU, BERE ZAURI ZAHARRA EZ BAITIOTE OSATZEN UZTEN.

J.M. PASTOR



IX. UEU ZENBAKITAN

Zenbakiak hotz gerta daitezke, beharbada. Hala ere, uka erineko zehaztasun eta objektibotasuna adieraz dezakete eta horregatik, artikulua hau prestatzean, gauzarik egokien eta zuzenena horrelako zenbakiak ia huts-hutsean ematea pentsatu izan dugu.

Ikusiko denez, zenbaki hauek argi hitz egiten dute, U.E.U-k —Udako Euskal Unibertsitateak, noski— duen garrantzia. Beraz, hitzen kalamatrika alde batetara utziz, pasa gaitezen zenbakiz beteriko koadroak ikustera.

PARTAIDEEI BURUZKO SAILKAPENAK

Denetara 544 lagun matrikulatu dira ofizialki 1981.eko ekitaldi honetan. Hortik aparte, egun bat edo beste bisita modura joan direnak ere kontatu behar dira. Hurrengo koadro biek partaide horien sailkapena adierazten dute, lehenak jaioterriaren arauerak eta bigarrenak bizitokiaren arauerak.

I.- Partaideen jaioterrria

	Zenbat	%	1980.urtean
Araba	18	3,31%	11
Bizkaia	259	47,6%	203
Gipuzkoa	201	36,95%	167
Nafarroa G.	33	6,07%	28
Iparraldea	8	1,47%	13
Beste	25	4,59%	18
DENETARA	544	100%	440

II.- Partaideen bizitokia

	Zenbat	%	1980.urtean
Araba	22	4,05%	14
Bizkaia	281	51,65%	231
Gipuzkoa	188	34,56%	144
Nafarroa G.	40	7,35%	30
Iparraldea	10	1,84%	14
Beste	3	0,55%	7
DENETARA	544	100%	440

Interesgarri da zenbaki hauek ihazko ekitaldikoekin konparatzea; horregatik ipini ditugu alboan 1980.urteko datuak. Argi ikusten denez, Iparraldea kenduta, partaideen kopurua gora joan da, herrialdeen arteko proportzioak mantenduz. Bizkaiaren pisu soziologikoaren garrantzia ere garbi ikusten da, Gipuzkoarekin batera 85%-a gutxi gorabehera hartzen dutelarik.

Hurrengo hiru taulatan adina, sexua eta ezkontzagoera hartzen dira sailkabitzen.

III.- Partaideen adina

Adin-tartea	Zenbat	%	1980.urtean
15-20	112	20,5%	15,9%
21-30	320	58,8%	59,3%
31-40	74	13,6%	18,4%
— 40	28	7,3%	6,4%
Ez dute erantzun	10	1,8%	—
Batezbesteko adina: 25,47 urte.			

IV.- Partaideen sexua

	Zenbat	%	1980.urtean
Gizonezkoak	282	51,84%	56,4%
Emakumeak	253	46,51%	43,6%
Ez dute erantzun	9	1,65%	—

V.- Partaideen ezkontzagoera

	Zenbat	%	1980.urtean
Ezkonduak	120	22,5%	23,4%
Ezkontgabeak	401	73,7%	74,7%
Bananduak	2	0,36%	0,23%
Ez duten erantzun	21	3,86%	1,6%

Adinari dagokionez, ihazko urtekoa baino pixkatxo bat gazteago ageri zaigu (ihaz, 26,1 urte) eta bestalde, emakumeen portzentaia gorantz doa (ihaz, 43,6% izan baitzen). Ezkontzagoerari buruzko portzentaia ia-ia ihazko berberak dira.

Baina nola parte hartu izan dute horiek UEUren barnean? Hurrengo koadroan galdera honi erantzun nahi zaio nolabait.

VI.- UEU barnean partehartzeko modua.


	Zenbat	%
Ikasleak	414	76,1%
Irakasleak	59	10,8%
Bietara	49	9,0%
Prentsa		
bulegoa	3	0,55%
Ez dute erantzun	19	3,49%

Partaideen ikasketen mailen artean gorabehera handiak agertzen zirela. Dena den, hurrengo datuak aztertzean soma daitekeenez, Unibertsitate giroko jendea da nagusi. Ohar gisa, diogun, "Unibertsitate-maila" jartzen dugun horretan ikasketak bukatuta dituztenak eta oraindik bukatu gabe dituztenak sartu ditugula, laster bukatuko dutelakoan edo.

VII.- Partaideen ikasketak

	Zenbat	%
Batxileratua	137	25,18%
Heziketa profesionala	21	3,81%
Unibertsitate maila	340	62,50%
O.H.O.	3	0,55%
Ez dute erantzun	43	7,91%

Inork ez du ukatzen UEUren ardatz nagusienetarikoa bat bertan erabiltzen den hizkuntza dela: euskara alegia. Nola ote dabiltza UEUko partaideak euskararen arloan? Ez da erraz galdera horri zehazki galdetzea, baina hurrengo koadroetako zenbakiak hainbat informazio agertzen digute.



VIII.- Noiztiko euskaldunak?

	Zenbat	%
"Betidani-koak"	346	63,6%
Euskaldun-berriak	185	34,01%
Ez dute erantzun	13	2,39%

IX.- Euskal tituludunak

Euskaltzaindia B mailako titulua	32
Euskaltzaindiko D mailako titulua	242
Hizkuntz Eskolako titulua	28
Derioko titulua	2
DENETARA	304

Dirudienez, ba, hizkuntzaren domeinuaz oso arduraturik dagoen jendea da; gehiago oraindik, euskaraz zerbait irakasten dutenak 277 direla ikustean.

BESTELAKO ZENBAKIAK ETA AZKEN GOGOETAK

Emandakoekin ez dira bukatzen datu estatistikoak, baina aspergarri gertatzeko arriskua edukiko genuke. Hala ere interesgarri da, partaide ez gain eginiko ekitaldiak ere aipatzea. Ukitu diren arloak ondoko hauek izan dira: Botanika, Ornitolo-

gia, Geologia, Fisika, Kimika, Matematika, Injinadoretza, Ahozko Euskal Literatura, B eta D mailako tituluatarako ikastaroak, Glotodidaktika, Linguistika, Bertsolaritza, Deretxoa, Ekonomia, Filosofia, Psikologia eta Historia. Hurrengo koadroan, zenbakien bidez adierazten dira ekitaldiak.

X.- Ekitaldiak

Ikastaldiak	139
Mintegiak	65
Laborategiak	21

Lanorduak (denetara) 470


Ez da azaren azpiko orria aste bitan 470 lanordu egitea, ez horixe.

Aipatu beharrekoa da halaber, emandako ikastaroen maila etengabe gora doan faktore bat dela eta zenbait arlotan ikerkuntzako lan sakonak egiten direla. Faktore hau hitz laburrez eta zenbakitan ematekoa ez bada ere, nolabait azpimarkatzeko, Unibertsitate ofizialetan lanean ari diren 48 irakaslek parte hartu dutela esan behar dugu. Bestalde, aurten tesi doktoral bat eta hamar tesina aurkeztu dira.

UEUren gurdia aurrerantz doa, beraz. Zenbakiak horrela diote. Kontua zera izango da, alegia, goranzko abiada horri eustea. Mila eratako oztopoak ditugu horretarako, baina gaudenak gaudela, urtean zehar neukume berriak egiten baditugu, lortuko dugun kontua da. Ea ba!

J.R. Etxebarria

IMANOL BERRIATUA HIL DA



Behin batean gizon txiki, argal eta apal bat bizi zen Bilboko Nerbio hutsa bihotz handia.

Jenioa ere ba zeukan, baina nahiko kontrolaturik eta hezik. Behintzat ez zuen eskandalurik ateratzen, horretarako hamaika motibo bazeukan ere.

Hori bai: Lan egiten zuen. Etengabe. Egunez, Gauez. Lorik egiten zuenik ez dakit, baina ez zuen antzik ematen, egiteko lana ikustean behinipehin.

Duela hamar bat urte ezagutu nuen pertsonalki. Ordurako, ANAITASUNAko azkenaurreko orrialdea goitik behera, koma bat ahantzi gabe, aztertzen eta buruz ikasten nuen. Dena edo ia dena zekien pertsona zen nire ustean. Horrelako batetan ni ere ausartu nintzen zerbait idaztera eta neure lehengo artikulua bidali nuen aldizkari horretara. Ondo gogoratzen naiz: Erlatibitatearen Teoriari buruzko lantxo bat zen. Berak, ohiturazko zuen zehaztasunez zuzendu eta horrela argitaratu zen. Eta bide bat ere eskaini zidan: Nik nahi izanez gero, neure aurrean zuzenduko zidan artikulua, aldaketa edo zuzenketa arrazoiak banan banan azalduz.

Nire poza! Ordutik aurrera, hamabostero edo, Iralabarriko komentura joaten nintzen hango harreragelan ordubete edo ordu pare bat lanak zuzentzen aritzeko. Inoiz beraren gelara ere joaten ginen, Azkue, Lhande eta besteren hiztegiak hobeki kontsultatzen.

Zenbat ordu ez ote dugun horrela elkarrekin pasa! Nola ordain orduko laguntza!

Lauzpabost urte ibili ginen horrela eta egia esan, maisu hoberik ezin aurki nezakeen. Geroztik ANAITASUNAren egitura aldatuz joan zen eta bera ere bestelako lanetan hasi zen: Israeleko kontua, euskara erraza, "Hitz egin" metodoa, euskaltegiako kontua eta abar. Gutxiago egoten ginen elkarrekin, baina bai noizean behin, kafea, kopa eta zigarrapurua hartuz, bide batez zenbait zalantzari buruzko galderak egiteko probetxatzen nuelarik.

Israelerako azken bidaia egin aurretik hartu genuen azken kafea. Gogoratzen zara? Hirurogeitasei urte gainean eta zuk zeneukan ilusioa! Ba nuen zurekin egoteko gogoia, bueltan esan nahi dut, gure ama biak oso pozik etorri baitziren bidaiatik. Baina begira nola diren gauzak, gogoarekin geratu beharko dut.

Tira, tira! Joan zara eta ni hemen zure ohorez zerbait idatzi beharrean, idatzi nahian geratu naiz. Publikoki aitortu gura nuen, euskararen arloan izan dudana maisurik onena zeu izan zarela, beste askok aitortuko lukeen bezala, eta horixe egin gura izan dut artikulua honetan.

Besterik ez! Penarik dudana ala ez, hori ez dut esango. Bakar bakarrik, maisu eta lagun hanji bat joan zaidala.

J. R. Etxebarria



KOORKIN INFORMA

Adineko jendearen irakaskuntza inhardunaz, euskaldunak, irakurri eta idazteko alfabetatzen eta euskal hiztunak sortzen ari da Alfabetatze Euskalduntze koordinakundea.

Ikasturte berri honetan 387 Euskal Eskolak dihardu Euskal Herri osoan, A.E.K.ren irakaskuntza alternatiba bul-



AKUNDEA TZEN

tzatzen, bere barnean elkar koordinatzen dutelarik.

1981-82.ko neguko ikasturtean, asteen gutxienek sei ordu ematen dugula, 180 ordutako ikastaroak eskeintzen ditugu bate-tik. Urtean zehar ordu hauek gehiagotu ohi ditugu, 300-400-500 ordutako ikastaro intensiboak eta barru ikastaro trinkoak ere



antolatuz.

Irakaslegoaren prestaketaz kezkatu-rik, Euskal Herriko talde didaktikoa ikastaroak ematen ari da Iruinea, Donostia, Bergara, Zornotza, Gasteiz, Angosto era beste zenbait herritan, koordinakunde barru eta kanpoko irakaslegoa irakaskuntzarako kapatzuz.

Eraketari buruz ere urrats handi bat eman dute Euskal Eskolek azken urteotan, euskararen irakaskuntzan profesionalki diharduten Euskaltegiak antolatuz. Gipuzkoan, Goi Herriko Euskal Eskola, Bizkaian Gabriel Aresti, Bilbo Zaharra.

Nafarroan Arturo Kanpion Euskaltegiak, lanean ari dira aspaldidanik eta hildo bera sakonduz Bilbaon, Resurrección Maria de Azkue, Mateo Zabala, Getxoko Euskaltegi eta Donostian Rikar-ko Arregi euskaltegiak zabalduko ditu A.E.K.k Urrian.

A.E.K. eta EUSKALTZAINDIA

Rikardo Arregiren eraginez, 1968an gau-eskolak Euskaltzaindiaren babes-pean lanean hasi zirenez gero, bilakatze handia gertatu da A.E.K.ren historian, gizartearen egoera aldatu den heinean ere aldatu egin bait da.

Desarrollo honetan 79-80 eta 80-81 ikasturteetan A.E.K.k behin eta berriz aurkeztu du han hemen bere irakaskuntza alternatiba, egungo egoera, helburuak eta epe motz eta luzareko proiektuak zehaztuz. Azkenik, Uztailean Euskaltzaindiak erabaki du Euskal Herriko Alfabetatzeta eta Euskalduntzea ez dela bere barrutik egin beharreko lana eta honela agertu dio A.E.K.ri, egiteko horretan bere kabuz jarrai dezan eskatuz.

A.E.K. ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK

Nahiz eta Nafarroan Foru Aldundiak eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzak batetik eta Foru Aldundiek bestetik euskararen aldeko gogo eta egitarauak agertu dituzten, Iparraldeko egoeraz ere aski larriturik, A.E.K.k hizkuntz plagintza nazionalaren falta eta



behar nahi ta nahiezkoa agertzen du eraberean egiteko horretan bere burua ere inplikaturik jotzen duela.

KORRIKAREN DIRUAREN BALANTZEA

SARRERA 33.386.301.- pzta.
IRTEERAK 21.201.254.- pzta.

SARRERAK:

Bizkaia 15.125.149.- pzta.
Gipuzkoa 5.132.486.- pzta.
Nafarroa 5.383.432.- pzta.
Araba 2.712.422.- pzta.
Erakustazoka 4.689.420.- pzta.
Anonimoak 343.392.- pzta.

33.386.301.- pzta.

IRTEERAK:

Erakustazoka 4.078.118.- pzta.
Korrika-antolaketa 2.809.860.- pzta.
Publizitatea 8.352.466.- pzta.
Materialea 5.940.810.- pzta.

21.201.254.- pzta.

Superabita: 12.185.047.- pzta.
Materialea: 2.926.000.- pzta.
Txoznak: 3.234.600.- pzta.

SUPERABIT OROKORRA

18.345.647.- pzta.
AEK

ADARRA JOTZEN...

Profesionaltasun objetibo eta neutroaren mitoa agertu zaigu irakasle lehen borrokalari eta aktibo askoren baitan ere, eta desira horrek bete du nolabait agorrilaren azken astean egindako V. ihardunaldi pedagogikoetako giro epela.

Txalagarria benetan ADARRA kolektiboaren asmoa: sektore guztietako irakasleak bildu eta denen artean irakaskuntza-sistimaren kritika globala egitea; irakasle-lanak inguru honetan duen funtzioa aztertuz eta alternatibak proposatuz.

Baina azken urte honetako ihardunaldiak helburu horretatik urruntzen ari direla aitortu behar. Arrazoiak?:

-ADARRAK ez du gainditu irakaslegoak duen joera bat, alegia, sektorez-sektore ematen den disgregazioa; eta, horrela, gehienbat irakaskuntza "estatalako" eskolaurte eta OHO-eko irakasleak aurkitzen ditugu, ihardunaldietan (ikastaro gehienak ere hauentzat prestatuak izanik), eta oso gutxi edo ezer BUP, Unibertsitate edo ikastoletako irakasle-rik. Azken hauek Irakasle-Elkarteek antolatutako ikastaldi bereziak izan dituzte uztailean.

-Bestalde, eta beharbada irakaslegoaren gogo subjektiboari erantzunez, profesionarien hobekuntza eta espezializakuntza zaindu du ADARRAK, eta horren neurriko ikastaroak antolatzen ahalengindu da, sistimaren kritika egiteko bide batzu zabaltzen baino gehiago. Eta horrela, kontzientzia hartzera baino bere profesionari-maila hobetzeko asmoz hurbildu da jende asko ADARRARA.

Egia esan, ez da erraza gaur irakaskuntza-sistimaren analisi kritikoa egin eta honen alternatibak lantzea. Alde batetik, sistema honen arduradunek, Hezkuntza-Ministeritza autonomoak eta besteak ez dira jende aurrean bere lanaren erantzule agertzen. Bestalde, bere sektoreko arazoak ondo ezagutzen baditu ere, irakasleari falta zaio askotan beste sektoreen problematikaz jabetzea.



Eta, honen ondorioz, irakaskuntzaren kritika baztertuz ("politikoen lan"-tzat kontsideratuz), profesionaltasunaz arduratzea da irakaslegoaren gaurko joera nagusia.

Hala ere, eta joera hau lojikitzat hartu behar badugu ere, ezin dugu ontzat hartu. Irakaslegoaren hobekuntza teknikoak berez da helburu ona; baina irakasleak ezin du bere burua teknico neutrotzat konntsideratu, Teknika -edo honen aplikazioa- ez baita inoiz neutrala, eta are gutxiago arlo honetan.

Argi esan zuen ADARRAren arduradun batek bertan egindako azken asanbladan: "Ez da gure helburu printzipala prestakuntza teknikoak eskaintzea, sistema honetan irakasleok betetzen dugun funtzioaren kritika egitea baizik".

Hau beti egia izanik, gaur Euskal Herrian dugun egoerak ematen digu lan horren premia larria. Euskal gizartearen euskalduntzea irakaskuntzari loturik doa. Herri honek ez du bere euskal eskola publikoa lortu, eta ikastolak ikastetxe pribatu bihurtzeko bidean ikusten ditugu kasu askotan. Ez du oraindik inork aztertu orain arte "eskola estatalak" izan diren funtzioa zein izango den. Euskal Herriko irakastuntza-sistema kapitalismo modernoari gero eta moldatua aurkitzen dugula esan dezakegu.

Baina, gainera, ezin dugu esan gero eta euskaldunagoa denik ere. Halako inguruan, zein da irakaskuntzako profesionari trebe eta neutro baten funtzio tristea?.

Egia da, nire ustez, V. pedagogi-ihardunaldi hauek gaur irakaslegoan ematen diren tendentziak kanporatu besterik ez duela egin, eta ADARRAK, beraz, hor ez du ardura berezirik: ispilu bat izan da.

Egia da, baita, tendentzia hauek aldatzea ez dela gaur edonako lana. Baina joera "neutro" hori indartu duten gure erru batzu aztertu beharko genituzke, adibidez lan pedagogikoa eta lan sindikala zein bere aldetik eta gauza bereziak bezala kontsideratu ditugu askotan, eta bikoiztasun hau irakasle askorengan elemendu ideologikoa bihurtu da.

Bestalde, berehalako errebindikazioetan finkatu dugu sarri askotan gure lan sindikala, eduki pedagogikoen eta sistimaren antolaketaen eta ondorio sozialen kritika ahantziz.

Azkenik, ez dezagun etorkizunean irakaslegoaren joera naturala den sektoretasuna indar. Elkar ditzagun ikastola zein beste sektoreetako irakasleak ihardunaldi bakar batean, irakasleari beharrezko duen espezializapena baita irakaskuntza-sistimaren ikuspegi orokorra eskainiz.

K. L.

URTEROKO IRAILAKO KONTUA.

HAVXE DUZUE "ESPEKULAZIO AMA" AUZUNEA,
 POTXIEZ, ARRATOIEZ ETA ETXE ZAHARRETAKO
 ZARTADUREZ ERABATZORNUIDUA, HIRI BASTE-
 RRETAKO AUZO LANGILEEI DAGOKIENEZ.

- HAN BEHEAN DAGOAN ETXE ZAHARRA AL DAKUZUE? BA, AUZOKO ESKOLA ESTATALA DA. JAIMITOREN AITAK GABA OSOKO ERRENKADA EBIN DU HAUERRA MATRIKULATZEKO
- ETA ESKUBIKO EREMUA? JUANITO LABANBUZEAREN BANDAKO EK DUTEN TOKIA.
- ETA EZKERRETIK IGONDA ABERTZEN DEN ETXE-AZPIA? AUZOKO HERRI IKASTOLA



HARA BARRURA !!
 BANAN-BANAN
 ETA DIRUA AHOAN.
 HAU ATRAKOA
 DUK !!

BAINA,
 ZELAN 6000
 PZT LIBURU-
 TAN ?

BA PENTSA :
 MONOPOLIOEK
 %35 HARTZEN DITEK ;
 MINISTERITZAK ERE
 ZURRUPATZEN DIK ;
 BANATZAILERAK %15
 ETA GUK %30
 ARGI ZEGOK
 EZ DUK ?

HORRELA
 BA DUK...

PASTELA
 ALA
 BIZITZA!

KROMOA
 ERE BAI ?

AIZAK !!
 PATXI !
 ZELAN DUK
 ANDREA ?

ASPALDITIK
 EZ DIAT IKUSI
 ... BESTE
 ESKOLAKO
 KOLAN ZEGOK,
 BADEREZ PADA


SHIGEGHIO ISUMI-k.116 urte ditu. Japoniarren artean urterik gehien dituen omen da. Guinness-en rekord-liburuan munduko bizilagun zaharren bezala agertzen zaigu, hori nahikoa eztabaidagarria izan arren. Shigechio Tokunoshima delako irla ttipian bizi da eta egunero berrehunen bat bisitari hartzen ditu bere etxean, haietako gehienak ezkonberriak direlarik. Pertsona bakoitzari mila yens (bost dolar gutti gora behera) kobratzen dio. Ordainaren truke agureak kopatxo batzu arroz-ardo, ahurraren fotokopia bat eta luzaro bizitzeko kontseiluak eskaintzen ditu. Zer pasatuko da Espainian Elena Francis kuttuna zaharragotuko zaienean?




JELIO BIAFRA "Kennedy-tar hilak" deitzen den Californiako talde punk baten zuzendaria da. Talde horren kanta baten hitzak hala diosku: "HAURRAK HILTZEN DITUT ETA POZTU EGITEN NAIZ HILTZEN IKUSIZ". Diska-argitaletxe batek hori kale-ratzeari uko egin zionean taldeko aingerutxoek beste bat aurkitu zuten, "Faulty Products" izenekoa. Argitaletxe honek gogoz onartu zituen eta orduan, NEGOZIOARI EKIN.



EZ DAKIGU ORAINDINO zergatik Hilda Tornstrom-ek gorrotatzen dituen gizonak. Baina egia hutsa da. Neska honek Estokolmoko denda baten behar egiten zuen eta gizonezkoentzako galtzerdi salgaietan "pika-pika" edo hazkura sortzeko hautsa sartu zuen. Eta ez hori bakarrik. Neskatoa ez zegoen pozarren eta azkenean barneko arropetan ere ipini zuen, galtzotziloetan alegia. Zorritzarrez berarentzat, noski —emakumezko lankide batek oro ikusi zuen eta kondatu ere. Orain Hilda (JILDA eta ez hilda) kanpoan daukagu lapik gabe. ESKERRAK GURE ARROPAK MATAROTIK DAKARZKIGUTENA!



ESTATU BATUETAN senadoko legegileak zeharo harrituta geratu dira. Izan ere, iaz denda eta merkatuetan jasoriko lapurretak 9.000 milioi dolarretaraino igotzen dira eta halako gauza bat ezin gerta daiteke haien herrian. Atxakiak bilatu behar zirenez, senatoreek joera hori onargarria dela esan dute zeren eta Estatu Batuetako gizarte barruan sakonki sartu baita. Hala eta guztiz ere inork ez du aitortu Ameriketako langabezia gehituz doala eta egoera soziala gero eta okerrago dagoela.




GUY BROUTY eta JEAN LOUISE frantsesek buru-hauste bat sortu dute, munduko buru-hausterik haundiena. Asmakariaren luzeera bost metrotakoa da, haren zabalerak hiru metro dauzkararik. Haren 50.000 hutsune betetzeko 18.000 berba idatzi behar dira. Saiatu gero!



NOSTRADAMUS astrologoa 1566.ean hil zen arren, oraindik ere irauten du horoskopozaleen gogoan. Pertsonaia honek "Centuries" liburua idatzi zuen 1.555.urtean. Liburu honek tan igarpen asko daude. Hori dela eta, "Bild-Zeitung" alemaniar komunikabideak zera azpimarratzen du: Nostradamusek behin eta berriro esaten zigun IGITAIK kalte itzelak ekarriko zizkiola gure gizarteari.

Jakintsuek pentsatzen dutenez, KOMUNISMOARI BURUZ mintzatzen zen hori igartzean.

"Bild -Zeitung"eko azti gizajoek hamaseigarren mendean ere ikusten dute komunismoaren itzala.



SAR ZAITEZ ANTZER

Karraka antzerki taldea 1980. urtean sortu zen, Comicos de la Legua-Kilikiliariak taldearen partaide izan ziren pertsona batzuren bidez. Kooperatiba honek "Fasas para títeres", "Historia de Llodio", "Stand nuclear", eta "Historia de un soldado" egin ondoren, "Pase sin llamar", "La mujer que osó quitarse el otro guante" eta "Karrika Karraka" aurkezten ari dira herriz herri. Alex Angulo eta Cesar Saratxurekin izan dugun elkarrizketa hau delarik medio, antzerkia bizirik mantentzeko egiten ari diren ahaleginak eta beren kezkek ezagut ditzakegu.

- Orain dela urte bete edo, Comicos de la Legua-Kilikaliariak taldea desagertzen zen antzerki mundutik. Zuetariko batzuk parte hartzen zenuen bertan. Zeintzuk izan ziren desagertuta horren arrazoinak?

- Ezin da esan arrazoin bat bakarrik izan zenik. Hasieran, motibu bat ekonomikoa zen. 6 urtetan zehar subentziorik gabe, erakunde ofizialek antzerki politika bat eratu gabe, etab, horiek denek jendearengan neke hondar bat uzten dute, antzerki edo kultur munduan oso zaila dela profesionali bizitzea ikusirik. Bestalde, Francoren garaian antzerki independentea zenbait bereiztasun konkretuez sortu zen. Gaur moeta horrek ez du lehengoko funtzioa betetzen, eta Comicos de la Lengua bezalako talde bat erakartzen du bere erorketan.

- Nik uste dut taldeak, urte horietan, bere funtzioa bete zuela, hots, jardunaldi zirkuitu bat irekitzea, antzerkia jaiari erantsi ziezaion. Azken urteotan Comicos de la Legua taldeak bere barneko lan jokaera ez zuen taxotzen; ez zen estetika edo politika arazo bat, antzerki hizkeraren harmak gizarte berrira egokitu behar genituela baizik.

- Karraka kolektiboa Kooperatiba profesional bat bezala eratu da. Gaurko euskal kulturaren egoeran aukeraketa horrek ez al du arrisku bat suposatzen? Pertsonalki, zer erakartzen dizue horrelako lan batek?

- Profesionala izateak suposatzen duen

arriskua gureganatua genuen Comicos de la Lengua taldean geundenez gerotzik, baina gaurko egoeran ekonomia aldetik arriskutsuagoa den egitura bat aukeratu nahi genuen, gure estruktura aktorearen lana atseginagoa izatea onartzen baitu, lehen talde txiki batetan bakoitzak bereganatzen zituen lanekin konparatuz. Ideia, urte honetan zehar esperientzia hori posible den ala ez eta jendearen aldetik zer nolako harrera dugun ikustea da.

- Gainera Karraka-ren produzio kapazitatea Comicos taldean genuena baino askoz handiagoa da, talde guztiak parte hartzen ez duen ikuskizun eta ekintza antolatzen ahalmenaz. "Pase sin llamar", "Karrika karraka", Audioko lilitagian izan dugun lana eta esperientzia, etab. lekuko.

- Azken urteotan antzerkia karakter berri bat hartzen ari da. Lehen antzerki independentea sistema politiko eta antzerkiaren ohizko egituren kontra joatean baldin bazetzan, gaur egun zer uste duzue eskeintzen diola karraka taldeak euskal ikusleagari?

- Egun, egoera politiko pixka bat aldatu dela jakin arren, jokaera kritiko horrekin jarraitzen dugu, ikuspegi estetiko batetik eta aktorearen lana aldetik gure antzerki jokaera sakonduz.

- Gainera Comicos taldean kanpaina lan bat egiten zen batzutan kalean zeuden kezka eta mugiketetan oinarritzen bait ziren gure lanak. Gaur egun, "kalea" artea baino bizkorrago doa. Horregatik gelditzen zaigun aukera oinarrizko ez den zer-bait lantzea da, kalean dauden gaiak ez ordeztatzeko, gaur egun langileriaren burrukak kulturak baino indar gehiago baitu. Horrek ez du esan nahi politika gaiak ikuttu behar ez dugunik, sakontasunez eta azterketa handi batez baizik, azaleko testiguntzatik urrun. Dena dela, beti dago politika antzerkiko militantearengatik ordeztatzeko arriskua. Hortxe dago gakoa.

- "Pase sin llamar" lanera mugatuz, pailasoak, biak, zirkoko pertsonaia ergelak izatea gauza bitxia da. Zergatik ez dago augustorik, taldeko azkarrik?



KIAN, DEITU GABE

- Hasieran ez genuen azkarra alderatzeko asmorik. Gure helburua geure barnean daramagun pailasoa aurkeztea zen, eta pailaso hori horrela atera zaigu. Nahastendean, hanka sartzen duen pertsonaren antza du, eta ez araua eta legea itxuratzen dituen agostoarena.

- Zineman objektuak balio espezifiko bat lortzen du. Antzerkian, ordea, garrantzia elkarrizketan datza. Zuen lana mimoan oinarritzen delako agian, objektuei balio berezi bat ematen diezue?

- Espektakulu honen elkarrizketa pailasoa eta objektuaren artean sortzen den erlazioa da. Hortxe ditugu, esate baterako, atea, aulkia, ikurrina, etab. Oso inportantea da objektu horien balio aldaketa tinkatzea. Katilu batek, mahai batek, espezifikoak darduzkan baino balio gehiago dute. Itzasontzi batek, hegazkin batek, zuk nahi duzun erara funtziona dezake.

- Hitz gutxitan, zein da "Pase sin llamar" lanaren helburua?

- Norberaz trufatzea da, bakoitzaren astakeriak eta fantasiak lotsagarritzea. Gainera kreaio bilakabidea oso berezia izan da, berez sortzen ziren objektuetan oinarritzen baikin, gure behekonszientean zeuden gauza asko lanean utziaz. Badago zenbait gauza irakurketa politiko bat dutenak, besteak, berriz, gizakogoa, kuttunagoa. Ez gara abiatu emaitza konkretu bat bilatuz, ikerketa lan horren azken emaitza erabatekoa izan zedin baizik.

- Zer esan dezakezue "Karrika Karrika" azken lanari buruz?

- Lehenengo gauza: Kalekoa dela, hobe esanda, kanpoan egiteko pentsatuta dagoen espektakulu bat. "Pase sin llamar" lanarekin konparatuz, hitza erabiltzen da. Elebiduna da. Oso intraszendental da eta topiko askorekin jokaten dugu: Aurrezki Kutxak eta beren subentzioak, harri azpitik sortzen diren eta oiloak domatzen dituzten euskal artistak, eta titiritari talde bat betiko trukoekin.

- Zuen antzerki lana haurrei begira

ere planteatua dago. Ene ustez, askotan haur antzerkia helduen ikuspegitik lantzeko arriskua dago. Nola planteatzen duzue zuek haur antzerkia?

- Antzerki moeta hau egitea erabaki genuenean, haurrek espektakulu bukatuak ikus ditzaten ukatu genuen, animazio ekintza bat bultzatzea bait zen gure asmoa. Gu umeen artean aurkitzen gara giroa lantzeko eta umeei antzerkia eginaz jolas dezaten. Saiatu behar dugu umeak bidematzen, motibatzen, eta ez geuk nahi duguna egiten.

- Beti esan ohi da Administralgoa, gure kasoan eta hemendik aurrera Euskal Administralgoa, ez dela behar hainbat kezkatzen kulturaz. Subentzioak, noizpait iristen badira, nahikoak direla beren erantzuna neurtzeko uste duzue? Talde profesional bat izateak aldatuko ote luke zerbait?

- Ni, berez, subentzioen alde eta kontra nago. Taldea lanean jarraitzeko soilik balio badute subentzio horiek ez dira nahiko, kultura eta antzerki plangintza falta delako. Subentzio asko banatu arren, ez bada azpiegiturarik eratzen, kultur ekintza horrek ez du iraupenik izango.

- Gainera subentzio horiek aplikatzeko kriterioak beharrezkoak ditugu. Ez da inoiz kontutan hartzen espektakulu batek izan dituen harrera eta eskaera. "Iparagirre" montatuko da oso garrantzitsua delako eta bere heriotzaren mendeurrenean gaudelako, baina norentzat planteatu da? zein ikuspegitik dago Iparagirre aztertua? Beti ahazten da ikuslegoa. Talde bati subentzio bat ematen zaio eta ikuslegoa behartua dago antzerkira joatera. Baina zer gertatzen da jendea ez bada "Iparagirre" ikustera joaten eta bai subentziontua izan ez den talde baten lana ikustera? Herriko harrera eta eskaera kontutan hartu behar dira eta ez eskaera ofiziala.

- Bestalde, plangintza honetan Udaletxeek badute zer esanik, jendeak antzerkia gauza arrunta bezala ikus dezan, zinema ikustera doan bezala. Toki egokiak prestatu behar dira horretarako eta Udaletxeek beren kultur politikan antzerkia ere sartu beharko lukete.

Xabier Portugal

UDALDIKO

Aurten, betiko legez, udan eduki dugu teatro profesional delakoa ikus ahal izateko aukera. Iruinera San Ferminetan hasten dira Madrigo konpainiak heltzen, baina gehienak Abuztuan etortzen ohi dira guregana.

Udaberri hontan, hala ere, nahiko ondo ibili gara Euskadin antzerki arloan, zeren Bilboko Aurrezki Kutxak eta Banco Guipuzcoanoak bederen teatro ihardunaldi batzu eratu dute, Euskadi mailako talde askoren eskuharmenarekin, hala nola "Maskarada", "Karraka", "Peter Roberts", "Denok", "Geroa", "Porrusalda", "Akelarre", "El Lebril Blanco", "Txontxongilo"... Ezina izango zen talde guztien lana juzkatzea, alde batetik aldizkarian sartuko ez litzatekeelako, eta bestetik denak ikusi ez ditudalako.

Hontaz gainera, Bilbon bi talde berri aurkeztu dira: "Picaresca" eta "Ardatz". Lehenengoa aspaldian "Akelarre"n egoniko jende batzuk osaturik omen dago; bigarrena, aldiz, antzerkigintzan hasberriek osatzen dute.

Aipatu behar dugu ere "Karraka" taldeak ekarrita, Mezzanoko (Italia) "Compagnia Dramático Vegetale" a pasatu dela Bilbotik. Izena, heuren esan zidatenez, Pinotxoren ipuinetik hartua da. Talde hoietakoek, "Karraka" eta Claudio Nadierekin batean, modalitate berri bat asmatu zuten, eta egun beretan, antzoki berean, baina ordu ezberdinetan, hiru espektakulo erakutsi zuten.

Instituzioek bultzaturik ikusi dugun bakarra Calderon de la Barca-ren "La Cena del Rey Baltasar" auto sakramentalak izan da. Egia esan, nahiz eta jende pilak parte hartu (dantzariak, kantariak, aktore-aktoretasak...) guztiz astuna gertatu zitzaigun.

Dantza ere izan dugu gure artean: ballet klasikoa "Ballet de Rhin" taldearekin, eta ballet kontemporaneoak, Karmen Larunbe nafarraren taldearekin. Jakingo duzuen bezala, K. Larunberen ballet hau Belgikan dagoen hoberenatariko bat da, eta Europa osoan ezaguna. Bere lanik ospetsuena "Gernika" dugu, hain zuzen ere.

Beno, eta hasierako haria berrarturik, ihazko arrakasta itzelak eraginda, aurten inoiz baino konpainia gehiago etorri dela ematen du. Bilbora behintzat.

Moeta askotako antzerkia izan dugu.

- Errepikatzaile amaigabeak: Jose Rubio gorrotagarria "Enseñar a un Sinvergüenza"rekin 8. urtez, Pedro Osinaga, 11. nez edo, "Se infiel y no mires con quien" dakar.

Errepikatzaileak dira ere ondoko hauek, baina ez dira oraindik hain asper-

"Cinco horas con Mario" Lola Herrerekin. Ihaz hitz egin nuen honetaz, beraz ez dut ezer esango, ez bada berritan merezi duela.

"Petra Regalada" Antonio Galarelan zoragarria, Julia Gutierrez Caba aktorearekin. Joan den urtean esan nuena diot berriro, guztiz gustagarria dela Gala-

«LA VIEJA SEÑORITA DEL PARAISO»



garriak bihurtu, bakarrik heuren 2. urtea da eta: "Alicia en el País de las maravillas", Rafaela Aparicio, Pedro Civera eta Mara Goyanesek parte hartzen dutelarik. Orain bi urte egon zen obra hau Euskal Herrian. Tontakeria hutsa da, baina ikus daiteke, inolako garrantzirik eman barik, noski.

ren teatrozaleentzat (neuretzat, adibidez), besteentzat batek daki! "Filomena Marturano". Aurten Concha Velascoren perezan Queta Claver ikusi ahal izan dugu, baina José Sazatorniklek jarraitzen du.

- Urtero etortzen diren aktore ospetsuak izan ditugu aurten ere: Paco Martínez Soria, inolaz ere erretiratzen ez dena

TEATROA

"Que mala sangre tienes", obrarekin. Arturo Fernandez, Amparo Larrañaga la-
guntzaile duelarik, **Un huevo de**
Pascua"rekin. Mary Paz Ponal, aldi
hontan Máximo Valverderek, **"Un**
inglés de Gibraltar"rekin obrarekin. Eta
amaitezko, burusoilek (Juanjo Menendez
eta Jesús Puente) berriro etorri dira baina



gauza berri batekin **"Dos al derecho,**
dos al revés."

- Hain sarritan etortzen ez direnak:
Elisa Ramirez, **"Tranpa"** antzerki poli-
ziko barregarria Francisco Valladares-
ekin. Ricardo Hurtado eta Irena Daina **"Un**
muerto de risa" obragaz. Conchita Go-
yanes **"El galán fantasma"**rekin. Espe-

ranza Roy-k **"Llámame Señora"** ekarri
du. Obra ez da batere ona, baina emakume
honen lana benetan ezinhobea da.
Aproba argia duzue, obra bera orain zen-
bait urte beste aktorea batekin estrenatu
zutenean, porrot itzela izan zela esaten
badizuet, ihaz berriro aurkeztu zuten
Madrilen hilabete t'erdirako, eta oraindik
dabil hortik zehar egunero teatroak betet-
zen. Derrigorrez ikusgarria, batez ere Es-
peranza Roymaniadunentzat.

- Musikalen arloan bi baino ez dira
etorri. Tony Leblanc eta Quique Camoiras
"Tu y yo con dos cojines" errebistare-
kin. Gehienetan bezala, zoritxarrez, dant-
zataldea nahiko ona izan arren, bere oro-
kortasunean jasangaitza gertatzen da it-
xugabekeria hau.

"Locos por la Democracia" Luciana
Wolf eta Karinarekin. Antonio D. Olan-
rena izatean, ba dirudi beste fatxada bat
dugula bistan.

Hemen ere M^a Dolores Praderak egin-
go dituen errezitaldiak sar daitezke.
Gainera oasi gisa balio izan zaizkigu.

ANTZERKI INTERESGARRIAK

Lehen, inoiz baino teatro gehiago
izango genuela aurten esan dugu. Eta
egia da. Baina konturatzen bagara, hiru-
ren bat izango dira bakarrik antzerki berri
interesgarriak:

Antonio Galaren **"La Vieja Señorita**
de Paraiso". Madrilgo kritikak oso txarto
utzi zuen obra hau. Arrazoiak egiazkoak
izanez ere, nire ustez ez zuen hain kritika
txarririk merezi. Egia da, bai, ez duela ezer
berririk aportatzen, topiko hutsak direla
ukitako gai gehienak; baina hala ere, eta
betiko legez Galaren idazlanetan, poesia
eta sentimenduz beterik dago textua. Ga-
la errepikatzen da, bai, berriro kazikismo-
aren aurka (eta zer?), berriro maitasunari
kantu bat (eta zer?), berriro emakume-
aktorea-izar batentzako obra (eta zer?)...

Askotan esan dute Galak burjese-
riarentzat idazten duela. Hau da, errebin-
dikapen deskafeinatuak egiten dituela,
andre burjesak pozik uzteko oso moder-
nak direla uste izanik, holako "protesta
teatroa" ikustean. Izan liteke, baina hala
izanik ere, oraindik aurkitzen dizkiet eder-
tasuna eta salaketa zintzoa Galaren obrei.

"La Vieja Señorita del Paraíso"ren
personaia nagusia emakume heldu bat
da. Aspaldian maitemindua, baina bera
maiteak alde egin zuen, hantxe itxaroteko
esaten ziola. Eta hantxe dago bera, jazot-
akoa gertatu zen ostatutik irten gabe, be-
re maitearen zain, itxaroteko esan bait-
zion! Eta hortik barrutik, zuzengabekeria
guztien kontra altxatzen da andereñoa:
harmen lantegi baten eraikitzearen aurka,
arrazen diskriminapenaren aurka, bi muti-
koen arteko maitasunaren erreprimite-
aren aurka....

Galak berak dio **andereño zaharrak**
indibidualismo anarkikoa daukala. Anek-
dota gisa zera esan behar dizuet, Mary
Carrillo aktorea, andereñoarena egiten
zuen Madrilen, ez dela etorri problemarik
eduki omen duelako konpainiakide bate-
kin (Viky Lagos). Bere lekuan Irene Gu-
tierrez Caba izango dugu. Beraz Gutierrez
Caba bi ahizpak batera egongo dira he-
men, eta biak Galaren obrek.

"Yo me bajo en la próxima. ¿Y usted?"
Beharbada musikalen artean koka-
tu beharko genuke, uste dugunez nahiko
musika baitauka. Adolfo Marsillac-ek
idatzi duen lehen antzerkia da. Diberti-
garri samarra omen da, eta antzesla ba-
karrak José Sacristán eta Concha Velas-
co.

"El beso de la mujer araña", Ma-
nuel Puig idazle argentinoaren nobelaren
egokiera. Aktoreak José Martín eta Juan
Diego. Argumentua zera da, preso politi-
ko bat eta homosexual bat zelda berberan
daude espetxean. Obra osoa bien arteko
elkarrizketa da. Egileari asko gustatu zi-
tzaion teatroraketa, baina gehienek esan
dute nahiko hobea dela nobela antzerkia
baino. Dena dela interesgarria.

Beste hiru obra, gutxienez, agertu dira
gure hirietako eskenatokietan. Bata Wo-
ody Allenek idatzirikoa bat, eta besteak
Arriches-en **"La locura de Don Juan"**
eta Javier Poncelaren **"Los habitantes**
de la casa deshabitada" dira. Aipatu
dudan azkenean, konpainiaburuak Anto-
nio Garisa eta Amparo Baró izan dira. En-
tzuon dudanez, antzerki honek ez dauka
balio haundirik, ez bada Errepublika ga-
raikoa dela eta beraz teatrozaleentzat no-
labaiteko interesekoa.

CLAUDIO NADIE, ANTZERKIGILE

Gure artean dagoen beste argentinarr bat dugu Claudio Nadie. (Hainbat daude). Politikan aritzeko etorri omen estatu espainolera, baina hemen egonik Argentinan estatu kolpea izan zenez, gurekin gelditu zen.

C.N.- *"Bai, nire erakundearen liberatua nintzen eta politika arazoetarako etorria. Teatroa utzita neukan zenbait denbora zela. Baina kolpea etortzean nire alderdikide batzu erahilak izan ziren; orduan hara itzultzea atzeratu egin nuen, eta zer egin ez nekenez, antzerkira bihurtu nintzen. Orain sei urte izan zen hau."*

Kolpeak Madrilen hartu ninduen, baina nik Bilbon ezagutzen nuen, eta nire iragan politikoa zela eta, ezagunak nituen hemen. Horrez gero, berriro etorri nintzen poesi errezitaldi batzu egitera batez ere, neure poesietako errezitaldiak, eta Argentinako egoeraren larritasuna ikusirik, hemen gelditzea erabaki nuen eta hasi nintzen antzerkian sendokiago lanean."

A.- Zein zen aipatu duzun talde politiko edo alderdi hori?

C.N.- *"Orientación Socialista" zeukan izena. Gaur egun talde politiko izatetik eritzi talde bat izatera pasatu da."*

A.- Zer egiten duzu orain teatroan?

C.N.- *"Orientación Socialista" zeukan izena. Gaur egun talde politiko izatetik eritzi talde bat izatera pasatu da."*

A.- Zer egiten duzu orain teatroan?

C.N.- *"Monologo sorta bat egiten dut. Eduki batzu desarroilatzen ditut: eguneroko gauzak, alde filosofikoak... era askotakoak. Ikuspegi teknikoak begiratura, nire lanaren bidez, monologoak bereganatu ahal dituen teknika ezberdinak aztertzen saiatzen naiz."*

A.- Italiako "Compagnia Dramático Vegetale" delakoaren "Peter Pan" obraren egile gisa zeu agertzen zara propagandean. Idazlea ere al zara?

C.N.- *"Bai. "Peter Pan" ipuinaren egokiera bat da, baina bertsio guztiz orijinala da, zeren textuak planteatzen dituen helburuak ez baitira egilearenak berak, desberdinak baizik."*

A.- "PORRUSALDA" taldean sarturik zaude, ez da? Nondik dator talde hori?

C.N.- *"Sektore bat aintzineko "Kilikilarien Eskola"tik dator; gero, beste taldeetatik etorritako aktoreak ere ba ditugu; beste batzu berriak dira teatro arazoetan, eta gero ni. Neuk idatzi baititut textuak, zuzendu egiten dut taldea, eta interpretatu ere bai."*



Talde honek bi generoren ikerketan lan egin nahi du: monologoa eta kabareta. Bi genero hau europarr korronte teatral berrietara egokitu nahi ditugu; korronte polakoetara, adibidez. Eskola polakotik oso hurren gaude."

Kabareta bezalako genero bat, orain arte arin eta hutsaltzat hartutako generoa, ikerketa serio batekin lotzen saiatzen dugu."

A.- "Kabaret literario" mugimenduen barruan koka liteke "Naufragos y Mendigos" zure oraingo obra, edo "Porrusalda"ren lana?

C.N.- *"Bai, nik baietz uste dut. Espekatakulu hau nahiko osoa da, eta kabaretaren berezitasun guztiak ditu."*

A.- Oso leku diferentetan aritu zara. unbertsitatean, antzokietan. "zirkuito underground" direlakoetan, e.a. Ezberdintasun aipagarriak nabaritu duzu?

C.N.- *"Bai. Teatroak erritu bat ezartzen du. Publikoak errespetatu egiten du erritua. "Txoko Landan" (Gay mugimenduen egoitza) edo "Lamiak" (Kafe feminista) bezalako eskenatoki batetan, zeinetan kabaretak sarrera haundiagoa duen, publikoak jokabide diferentea dauka. Aktore eta publikoaren arteko harremana oso hurbila da, publikoarekin kontaktu zuzenean dago. Publikoa ez dago han, itzalean galdurik, egiazkoa da. Askoz gehiago hartzen du parte, positiboki eta negatiboki. Zirikatuta ahal du. Antzoki batetan,*

gainera, lana landuagoa da, estetikoagoa...

Unibertsitatean ondo, jendea, pixka bat berezia dena, zorrotza da, intelektuala delako edo. Han zure lana ezin bizikiago egin dezakezu, haien artean ulertuko duten pertsona batzu ba daudena dakizu eta."

A.- Eta lurraldeetako jendeen artean, ba dago diferentziarik.

C.N.- *"Bai. Herrien historia politiko eta desarrollo kulturalaren arauera izaten da publikoa."*

Hemen egoera nolabait Europakoaren atzean dago oraindik. Kultur iluntasuneko urte asko bizi izan baitziren hemen, eta bost edo sei urtetan ezin da holako egoera hain txarrik gaineratu. Hau manifestapen artistikoen pobretasunean nabaritzen da, zeren plastika plano eta musikaren zerbait aspektu kenduta, hemen arteak oraintxe hasten hasi direla esan baitezakegu: teatroa bera duzu adibide argi argia."

A.- Behartuko bazintuzte teatroan egiten duzuna definitzera, jakingo al zen nuke?

C.N.- *"Beno, bai. Iharduera hau nire jakintza bilaren parte bezala egiten dudala esango nuke. Neure buruaren bila baita niretzat teatroa. Hau da... ba horixe!, teatroa eskola baten modura bizi dudala."*

TXOMIN PEILLEN:

Beti lanean, beti presente euskal kulturaren

Udako Euskal Unibertsitateak izango ditu bere akatsak, zelan ez?, baina baita bere gauza onak ere, eta horien artean Euskal Kulturaren inguruan bizi direnen topa-lekua izatea. Hango Sarrera-Hitzaldi egunean, hala izan genuen hemendik maiz ikusten ez den TXOMIN PEILLEN-ekin berba egiteko aukera, bera izan bait zen Hitzaldi hori emateko arduraduna. Hitzaldi interesgarri hori, elkarrizketaren ondotik doakizue (nahiz eta gure konpententzia zuzena eta arerio mortala den ARGIA-k guk baino lehenago argitaratu) bere eragina izango duela uste bait dugu. Ia ordu bete egon ginen berarekin, eta azkenean konturatu ginen ia ez gurela hitziak ere egin bere pertsonaz. Ezpainetatik irribarrea sekula kentzen ez duen gizon honen bihotzean beti dago presente Zuberoaganako ardura, eta aukera aprobetxatu dugu Euskal Probintzia mitiko horren errealitatera hurbiltzeko, apur bat sikan, eta beste alde batetik, berak bizi duen eta bizi izan duen Euskal Kultur mundua ezagutzeko.

Parisen jaiotako zuberotar hau —ez bakar, berak dioen moduan— 1932an jaio zen eta bere ikasketak eta bizitza osoa Frantziako hiri-buruan egin ditu. Biologiako eta Euskarazko klaseak ematen ditu, eta orain Letretan Doktoratu da 10 urte eroan dion "Anatomiazko Hiztegia" lanarekin. Gurasoak zuberotarrak zituan eta haien artean euskaraz egiten zuten, baina semei frantsesez. Honela, 16 urtekin hasi zen euskara ikasten, eta zuberoko kantu zaharren libu-

ru baten bidez ikasi zuen idazten. Andima Ibiñagabeitia elantxobetarrak bultzatu zuen euskaraz idaztera, Jon Mirande eta bere anaiarekin batera, zeinek ipuin bat publikatu zuen euskaraz baina gero ez zuen jarraitu. Euskaltzain Laguntzailea da, eta hainbat nobela eta artikulu idatzi ditu, Gernika-n, Euzko Gogoa-n, Egan-en, Anuario de Euzko Folklore-n, Igela-ko zuzendaria izan zen, eta orain Baionako Bulletin du Musée Basque-n, Cuadernos de

Etnografia Navarra-n, Fontes Linguae Vasconum-en eta abarretan idazten du, eta itzulpenak ere egin ditu. Hiru sari literarioen jabe da. Esan genezake Zientziak eta Letrak lotzen jakin duela, literatura eta etnolinguistika batera eginaz. Euskal Herrian beti egon da presente nahiz eta Parisen bizi, bere lanen eta harreman pertsonalen bitartez. Euskal Kultura, eta konkretuago Literaturaren berrikuntza garaiean parte hartu zuen eta onduko bere lagun bitaz hasten gara berbetan:





“ARESTI OSO ZABALA ZEN. MIRANDEREN OSO KONTRARIO ZEN BAINA OSO ADISKIDE ERE BAI”

Jon Mirande, herri tipiarentzat eman dezagun, pixkat originala zen, eroa. Garai hartan abertzalea izatea eroa izatea zen. Ez da ibili behar abertzalea izatea eroa izatea zen. Ez da ibili behar abertzaleekin, esaten zuten, erotu egiten bait da. Batzuk eroa zela esaten zuten, eta beste batzuk profeta zela: Kristori bezala.

ANAI.- Mirande aspertu egin zen Euskal Herriaz?

TXOMIN.- Bai, aspertu egin zen eta guk ez genuen konbentzitu. Ibiñagabeitia eta ni ez ginen haren eritzia-kideak eta ez genuen bildu. Adiskide asko zituen, mota guztietakoak eta bakoitzarekin bere une onak zituen: nirekin euskaltzale zen, beste batekin sozialista, beste batekin faxista, edo integrista edo tradizionalista, baina ez zuen admititzen Euskal Herrian gertatzen zena. Bitxia zen. Gero, ba zituen bere problema pertsonalak ere, lanarekin eta, eta gaixoa ere ba zen nerbioetatik eta depresioak zituen, zain-hausketak... Lorerremedioak ere hartzen zituen eta behin 15 egunetan jarri zuten lo eta handik atera zenean gaizkitu egin zen. Mirande oso adiskide zen Aresti eta Etxaiderekin; hauek ziren bere adiskiderik onenak.

ANAI.- Eta Gabriel Aresti?

TXOMIN.- Azken urtean, hil zen urtean, bakazioak elkarrekin pasatu behar genituen, Ea-n, itsasbaterrean. Orain oso guti

aurketzen den espiritu zabala, oso zabala zen. Eritzi eta kontrario guztiak admititzen zituen. Miranderen oso kontrario zen baina oso adiskide ere bai. Euskal Literaturari saio usaina, zuen kimika usain fuertea kendu zion, bizitasuna emanez eta kreaioa bul-tzatuz.

“ORAIN EZ DUT LITERATURARIK IDAZTEN. EZ DU BALIO. EZ DA PUBLIKATZEN”

Bere idazlanen zerrenda irakurtzen diot ondo dagoen jakiteko eta begira nolako abenturak eta desbenturak kontatzen dizkidan:

Euskal Herriko Ekonomia.- Dibulgazio lana zen, ekonomia eta geografía hartuz, eta 150 bat orrialde zituen. Bibliografía asko erabili nuen hura egiteko. Juanito San Martini eman nion eta honek Oñatiko bati; hainbat denbora pasa ondoren euskaraz idatzi nion Oñatiko honi, eta españolez erantzun zidan lan hori ez zuela sekula ere ikusi erantzunez. Beraz, ez dakit non paratu den, galdu egin dute.

Tximinuen segetua.- Nobela poli-ziakoa. Euskaltzaindiak antolatutako sari batetara presentatu nuen beste izan batekin, hiru kopia bidaliz. Laugarren bat nuen eta Txertoa-k eskatu zidan. Erdarara itzuli zuten eta zentsuraren baimena lortu zuten, baina gero esan zidaten “guk ezin dugu euskaraz publikatu baina kontaktoan jarriko zaitugu I. Sarasola eta Saizarbitoria-rekin” eta bildu ginen Zarautzen; emaztearen aurrean eman nien eskura publikatzeko eta aurkezpen bat egin nuen eta haietara bidali;



handik sei hilabetez idatzi nien eta zera erantzun zidaten: “ez zutela sekula nire aurkezpena ikusi ez eta nire nobela hartu”, beraz, hori ere galdua da. Lau kopia egin nuen, eta ene ustez nahikoa zen, baina... Beste hirurak Euskaltzaindiak izan behar dituen bait.

Emazte goxo bat.- Beasaingo nobela laburren saria irabazi zuen, eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak publikatuko zuela esan zidaten baina ez du egin. Hordago-k ba du kopia bat hortaz.

Jon Miranderen Mito-Hiztegia.- Bilbon, Deustuko Unibertsitatean hitzaldi bat eman nuen erakusteko nondik zetozen haren obran agertzen ziren mitologiak: euskalduna, keltikoa, grekoa, erromatarra eta holako gauzak. 80 orrialdetako lana zen eta Alfontso Irigoien-en eskuetan utzi nuen: publikatu behar zuen baina ez du egin, eta Hordago-k ere ba du kopia bat.

Beste liburu bat ere ba dut idatzia, ene ustez inportanteena dena, Argeliako iraultzaz. Saio bat da, eta ondotik 8 ipuin idatzi nuen hango eguneroko bizitzaz. Enfermero bezala egon nintzen han gerra-denboran eta arabiera ikasi nuen. Herriko jendearekin hartuemanak nituen eta iraultza baino lehen, iraultza garaian eta iraultza ondotik nola bizi ziren estudiatu nuen. Ipuinak hango bizitza kontatzen dute: frantsesena, arabiarrena, presoena, enboskadak nola egingen ziren eta abar. Hori ere Hordago-koen eskuetan dago.

Orain ez dut literaturarik idazten. Ez du balio. Ez da publikatzen.



"JOSEPH HEGIATEGI AHAZTUTAKO AUTORE ZUBEROTAR OSO KURIOSOA DA. ORAIN HAMAIRU URTE DESKUBRITU NUEN PARISKO BIBLIOTEKAN".

Dena den, ba daukat saio nahiko luze bat ahaztutako autore zuberotar batetaz, XVIII mendean filosofiaz eta historiaz idazten zuena euskaraz: Joseph Hegiategi. Euskaltzaindiak azkenik egindako bileran aipatua izan da.

Orain dela hamairu urte deskubritu nuen, Pariseko Bibliotekan obra bat zegoelako, eta orain beste obra bat deskubritu dut. Beren lehen liburua "Filosofo Euskaldun" deitzen da eta Mitxeleneri eman diot, egunen batetan publikatzeko. Liburua koptatu egin dut eta ehun bat orrialdetako oharra egin dizkiot aurkezpen batekin. Filosofia kristianoa eta kritikoa da garai berean.

Beste obra hau begira nola deskubritu nuen: Pariseko Biblioteka Nazionalean katalogoa oso txarto egina dago. Ba zegoen eskuiskribu bat "Les proverbes de M. Oihenart", eta nik esaten nuen, ba dakit zeintzu diren Oihenarten esaerak, ez dut ikusi beharrik, baijan egun batez eskatzen dut eta halako liburu handi bat ekartzen didate, eta esaten dut, baina hori ezin da izan Oihenarten esaerak, eta non ikusten dut, eman dezagun, 40 orrialde edo Oihenarten esaeraz baina ondotik Hegiategik egin zuen enziklopedia bat, historiaz, filosofiaz eta deretxoaz, euskaraz eta frantsesez, eta hartan sartzen dira Zuberoako historia, protestantis-

moa, fueroak eta halako gauzak, eta gero ba dago filosofia historikoa: filosofo grekoak, erromatarak eta bere denborakoak. Izugarrizko euskara erabiltzen du: Zuberoako euskara zaharra Larramendiren hitz berriekin, lapurdiko hitzekin; euskara batu bat nahi zuen egin eta euskara batu bat egin zuen. Eskola-maisua zen eta autore interesgarria da Larramendiren ideiak eta teoriak nola zabaldu ziren Zuberoaraino ikusteko, eta ez-intelektual baten filosofia eza-gutzeko. Herriko gauzetan kontserbadorea zen baina kritikala ere bai, eta batzutan kontserbadorea nahi du izan baina kritika gaintu egiten da; Elizaren kontra eta orduko gizartearen kontra agertzen da, orduko aberatsak eta burgesia sortu-berria kritikatu. Euskal Herria salbatzeko aberats sortu-berriak baztertu egin behar direla esaten du, eta salbatuko dutenak populua eta aitonen semeak (nobleak) direla. Kuriosoa da. Lan hori oraingo euskarari ipintzen ari naiz baina oraindik ez dut bukatu.

Donostiako Bibliotekan ba dago Hegiategiren lan bat "Ekonomia domestikaz" baina koptatzaileak ez zekien euskaraz eta hitzuz beterik dago.

Momentu honetan beste gauza bat ere egiten ari naiz: Zuberoako idazleen lorategi bat, antologia bat. Hordagok eskatu zidan eta ba dut 150 bat orrialde eginak Zuberoan bakarrik idatzi denaz, gauza zaharrak —XV eta XVI medekoak— eta berriak nahastuz.

"AITA JULES CASENAVEK PHASTUALARI ERLIJO KUTSUA DENDU DIO ETA TEATRO LAIKOA



KENDU DIO ETA TEATRO LAIKOA BIHURTU, ETA ES ZENARIOAN POPULUA HERRI XUMEA NAHI DU JARRI"

Txomin pertsona berbatsua da, baina ez berba-lapikoa, horregatik nahiko da ideia bat botatzea berak hartaz hiru-lau minutu hitz egiteko arazoa sakon analizatuz. Aurretiaz nekien gaurregun Zuberoan Phastuala edo Pastoraia dela eta ez dela, neskak sartu ala ez sartu dabilten eztabaida, eta hori azaltzeko eskatu nion.

Eztabaida bat dago. "Iparragirre" izan da lehenbiziko Pastoral gizon eta emakumekin emana, baina jendeak ez daki zergatik den hori. Aintzinean, gizonak eta emakumeak batera batzen zirenean teatroa emateko eskomulgatu egiten ziren botinajeak edo nahasketa sexualak egon ez zitezten baina hori Europa osoan izan zen eta orain lege hori kenduta dago. Beste alde batetik, orain pastoralak idazten ari den bakkarrak, Aita Jules Casenave-k, erlijio kutsua kendu dio eta teatro laikoa bihurtu, eta eszenarioan populua, herri xumea nahi du jarri eta orain arte ez zen onartzen hori. Sujeta, heroea behar zen, borrokalari bat, santu bat, errege bat, bertsolari bat, eta orain eguneroko bizitza nahi da jarri eta batzuk ez dute admititzen. J. Casenave-k bi pastoral idatzi ditu "P. Basaburu" eta "M. Basaburu" gizonetzkoen eta emakumezkoen eguneroko bizitzaz eta borrokaz eta hori nehorik ez du eman nahi teatroan, "baina ez dago heroerik" esanaz. Gizonetzkoen eta emakumezkoen nahasketa zaharrek ez dute onartzen baina gasteek bai.



Beste problema bat, jendearen falta da. Herri batzutan ez da gazte nahikorik pastorala emateko eta orduan bizpa-hiru herri bildu behar dira.

Nik Casenave-ri pastorala aldatzea proposatu diot, pastoral komikoa (asto larterra) berbztuz, trajeak aldatuz (orain Napoleon III garaiko soldadu uniformeak eta jantziak erabiltzen dira), musikak ere aldatuz (oraingo martxak XIX mandekoak dira, eta aintzina biolonarekin eta txirularekin laguntzen zen). Roger Idiart-ek egin ditu musika berri batzu, kantuak eman dezagun, baina gorrien eta urdinen martxak aldatu behar dira.

ANAI.- Pastorala hiltzeko arriskurik ez dago horrela?

Krisis pixka bat ba dago eta aurtan ez da pastoralik izango baina uste dut berbztuko dela. Idazleak ba daude eta teatro egileak egongo dira nonbait. Zaharrek esaten dute pastorala aldatzen bada ez dela inor ikustera etorriko era hil egingo dela. Baina jendeak berrikuntzak onartzen ditu: kantuan, eman dezagun, Niko Etxart-en kantaldietan jende pila bat dago, dantza berriak ere onartzen ditu, era orduan, zergatik ez du teatroan berrikuntzarik admitituko?. Gainera gaiak aldatu egin dira: aintzina santuak, bibliako pertsonaiak, frantsez erregeak ziren, eta orain pertsonai euskaldunak etorri dira; aldaketa handia izan da eta inork ez du ezer esan.

“Nik ezagutzen ditut oso frantsesak direnak, ESKUIDARRAK MITERRAN-ZALEAK, ETA EUSKARAZ HITZ EGITEN DUTE BAINA EZ DUTE JAKIN NAHI EZER ABERTZALETASUNAZ-EUSKARA BATUA ERDI ESPAINOLA DELA USTE DUTE”

Eta hemendik Zuberoaren egoera

sozio-politikora pasatzen gara.

ANAI.- Baina ohitura zaharren zaleok edo kontserbadoreek nortzu dira?

Kontserbadoreen artean ezkerreko jendea dago, eta kontserbadoreak dira gauza bategatik, uste dutelako aldatzen baldin bada abertzaletasun ideiak sartuko direla horren bidez. Beste alde, hor dago ETA eta ENBATA-ren arazoa. Zuk euskaraz idazten duzu eta esaten dute: hori ETA-koa edo ENBATA-koa da, berehalaxe, eta hori insulto bat da, horrekin esan nahi bait dute “hori ez da ezer” edo “pixkat eroa ala nahasia da”.

ANAI.- Gure ikuspegitik ez da hori argi ikusten. Zuberotartasuna eta abertzaletasuna aurka dauden kontzeptuak dira ala?

TXOMIN.- Bai aurka, aurka daude. Nik ezagutzen ditut oso frantsesak direnak eta euskaraz hitz egiten dutenak, eta Chirac-zaleak, eskuindarrak, Mitterrand-zaleak eta denetariakoak euskaraz hitz egiten dute baina ez dute nahi jakin ezer abertzaletasunaz, ezta Euskal. Departamenduaz ere. Kontra daude.

ANAI.- Euskal kulturaren kontra ere bai?

TXOMIN.- Haientzat orain arte, eman dezagun pastorala, babes bat zen. Ba zegoen pastorala eta Etxahun, eta hori paret bat zen eta haren babesean nahi dute egon: besterik ez dute nahi entzun ere. Ez dute nahi ikastolarik, euskara batua erdi española delako, era benetako euskara zuberoko delako, eta Zuberoako ikastolan zuberoko irakasten da eta ez dute euskara baturik nahi.

Begira, ni telebistan izan naiz emisio batetan eta hamar minutuz nimitzatu naiz bi alditan, ba, zuberotar bat etorri zitzaidan nire ikustera eta esan zidan

“ba dakizu, niri ez zatzaizkit bat era gustatzen, zuen bazter hartan ikastolak ari bait dira zabaltzen eta ikastolan ez bait duzue egiatzko euskara irakasten, baizik erdi española” etx orduan eskuen artean bait nuen J. Luis Davante-ek ikastoletarako egindako liburu bat, esan nion: liburu hontan hartzematen ba duzu hitz bat españulez, txanpaina bat hartzen deizut. Konprenitzen düzü?, eta berak: **bai, bai, baina hau ez da irakasten dena.** Beraz kontserbadoreek, euskara batua erdi española dela uste dute.

ANAI.- Ba, Bizkaian behintzat, batzuk berdin pentsatzen dute baina aldrebes: behin, kontserbadoreen elkarrekin batetako buruak esan zidan euskara batua erdi frantsesa zela, beraz, kontserbadoreak bat datoz mugaren alde bietan.

TXOMIN.- Bai baina gurean kontserbadoreak ezkerrekoak dira, eman dezagun sozialistak, ez dut esan nahi gazteak, baina bai 50 urtetako jendea. Beti daude horretan: guk ez dugu bakerik ETA-KOEN ERRUZ; ETA-koak guretzat kaltegarriak dira; gu hemen mugan gaude eta atzean ikusten dugu español aramada eta beldur ematen digute; gu ez gara lasai egon ahal.

ANAI.- Iparralden, eta Zuberoan ere bai, noski, Euskal Kulturari apaiz asko dago. Zaer diote horretaz kontserbadoreek?

TXOMIN.- Hori dela eta, Euskal Kultura apaizena dela diote eta berak laikoak direla.

ANAI.- Eta orain Etxahun hilda, laiko bat gutxiago kulturarako, ez da?

TXOMIN.- Etxahun gauza bitxia zen. Sozialista zen (frantsez sozialista, ez EHAS-koa) eta pastoralak idazten zi-



tuen, eta bere pastoraletan ba daude zati osoak abertzaletasunez beteak, Euskal Herriaren alde, euskal borrokaren alde, baina jendeak ez du kasorik egiten, eta ez dira konturatzen abertzaletasunaren aldeko mezu bat direla, eta hori txarra da.

ANAI.- Miterrand-en garaipenarekin gauzak ez dira hobetuko?

TXOMIN.- Orain, frantsez sozialistak euskararen alde atea dira, eta Zuberoako sozialistak harrিতa daude, harrিতa!, ez dakite zer pentsatu. Gaur, Atharratze-ko alkateari euskaraz egiten badiozu, euskaraz erantzungo dizu, baina lehen ez, lehen "ez zekien euskaraz" nahiz eta jakin. Ulertzen duzu?.

Ba da diputatu sozialista bat oso euskaltzalea dena, eta Euskal Departamendua egiteko hitza eman dute, baina orain kontsulta bat egin behar da, eta kontsulta hori ez da pasatzen. Euskal Departamendu horretan alde batetik euskaldunen erantzun hotza dago, eta bestetik % 60 ez dira euskaldunak ez eta euskaldunen semeak ere, konpotarrak dira eta horiek ez dute nahi. Ez dago inongo laguntzarik. Adibide bat gauzak nola pasatzen diren erakusteko: Euskal Departamenduarien aldeko zaerbaist propaganda egin denean, Zuberoako aldizkariak ez dute aipatu, eta orain esaten dute "zer da Departamendu hori, sekula ez dugu entzun eta?".

Berdin gertatzen da talde kulturalekin. Ba dago talde bat "SU-HAZIA" euskararen alde lan egiten duena, 50 lagun dira, eta zerbait egiteko prest dagoena, baina beti gartatzen da lehen pastoraletan gertatzen dela esan dizudana: beti dago freno bat atzetik.

ANAI.- Zuberoako euskal kulturaren etorkizuna?



TXOMIN.- Kultura biziko dela uste dut, baina hizkuntza gaizkiago dago. Eman dezagun 17 herritan guztiek dakitela euskara, baina beste 18 herrietan zaharrek eta adinekoek ba dakite, baina 20 urtez azpian ez da hitz egiten, editzen dute, entelegatzen dute baina ez dute hitzik egiten eta umeek ez dakite ezer. Gaur zerbait aldatu da eta euskara prestigio pixka bat hartzen hasi da, baina beranduegi gauza askotarako, umeentzat adibidez. Komertzioetan eta bankuetan eta, lehen askoz gehiago erabiltzen da; lehen toki hauetan euskaraz hitz egin eta grantsesez erantzuten zizuten, eta gaur ez, baina...

ANAI.- Emigrazioa handia da, ez?

TXOMIN.- Lehen bai, baina orain jendeak ez du emigratu nahi, eta ba direla bizpa-hiru urte jendea ez da joaten Zuberoatik, eta joaten diren gutiak departamenduan geltitzen dira, Lapurdin, Behenafarroan eta Biarnon, baina ez dira Parisera joaten, eta hau herrian gelditze-ko lehen pausua da.

"ARGELIARI BURUZKO IPUIN BAT PUBLIKATZERAKOAN ESAN ZIDATEN HORI EZ ZELA EUSKAL LITERATURA. ZER EGIN BEHAR, ZILBORRA BEGIRA EGON? HORI EZ DA..."

Denbora aurrera zihoan eta elkar-riketa amitu beharra zegoen, Txomin egun batetarako baizik ez bait zen etorri U.E.U-ra eta jende askok nahi bait zuen agurtu. Orduan, amaitzeko Euskal Litaraturari buruzko galdera bi zuzendu genion: bat, Euskal Literatura gaien aldetik itxi-egia ez da?, eta bi, krisian dago?, eta hona hemen bere erantzunak:

Uste dut gaurregun euskaldunen ar-

tean ez dela unibertsalismoa onartzen. Nik orain lau-bost urte Polonia eta Rusia bisitatu nituen eta lan bat egin horretaz, baina ba dakit hori ezin dela publikatuko ez duela inork nahi. Argeliari buruzko ipuin bat publikatzerakoan behin esan zidaten "hori ez da euskal gaia eta ezin da izan euskal literatura". Orduan, zer egin behar dugu, silborra begir egon?. Hori ez da... POTT-ek zuen zabaltasuna gustatzen zitzaidan, baina orain ez da argitaratzen eta...

Krisisa?, bai krisisa dago, baina krisis-garaiean gauzak hobetu egiten dira. Euskara gorputz bat bezala da, eta gaixotu egiten da, baina gaixotzen denean beste gauza batzu egiteko prest dago gaixoalditik irteteko. Krisisa dago baina beharrezkoa zen. Garai batean literaturak polo batzu zituen eta polo horik galdu dira, Mirande, Aresti eta horiek galdu egin dira, eta oraingo literatura pertsonalagoa da, eta poesia aldetik ez dut uste txarragoa denik. Aresti zerbait zer poesian, ez bait zegoen ezer aurretik (Orixe eta halako batzu) eta orduan izar bat bezala azaldu zen. Orain aberastan gehiago dago eta ez ditugu izarrak ikusten, izar asko denean ez bait da izar bat ikusten.

Agurtzean gauza bat baino ez genion eskatu: ez etsitzeko, nahiz eta lanak publikatu ez eta mila zerrikeria egin, ez desesperatzeko, Euskal Herrian, era gaurregun inoiz baino gehiago, lan egiten dutenak behar bait ditugu. B. Brecht-ek esan zuen moduan, "egun batez burrukatzen duten gizonak onak dira, baina bizitza oso burrukan ematen dutenak dira ezinbes-tekzoak".

J.R. BILBAO

Berriaren alde

Euskal Unibertsitate



"Agurtzen dut Nafarroa, agurtzen dut Iruñea, euskaldunen hiri nagusia. Euskaldun maiteok, agur".

Ez natzaizue esaten hasiko Euskal Unibertsitatea beharrezkoa dela, ez eta zergatik beharrezkoa dugun. Nere gaurko jarduna Euskal Unibertsitatea "zertarako behar dugun" izanen da.

Azken hogeitabost urteetan, erresuma askotako Ikastetxe Nagusietan galdera berdinak egin dira: **Nora goaz? Noren alde? Zeri buruz goaz?** Batzutan borroka latzak ere gertatu dirade; beti, Unibertsitate Erakundearen helburuak ta balorea zalantzan jarriz. Zoritxarrez Udaberri ta Maiatxa eder horiek ez dute, itxaroten zen fruta ta emaitza ederrik ekarri.

Orain arte gure Erakunde nagusi horien egitekoa, horien xedea zen: **jakintza erakatea, gero ahalik eta ikaslea, gizartearen onetan, ikasiaz balia zedin.** Hau teoriarik.

Praxiaren ikerketak erakusten digu, ordea, nola filosofoak eta unibertsitariak ez duten gizartea moldatu, ez aholkatu, baina

jarraitu, justifikatu. Gizarteari moldatu ez direnak benenoa edan, gulaga ezagutu, eta herri liberaletan diru laguntza gabe gelditu. Gizartearekin konformatze horrez beren buruak garbitzeko, Frantzian gure unibertsitariak diote "eztela zopan txisturik bota behar" eta ez dute aditzen nola euskaldun unibertsitariak ez duten oroz lehen frantsesaren alde borrokatzen, sabelaren eskez, onez.

Ikus dezagun orain aintzinako unibertsitariak nola gizartearen aurrean belaunikatu diren. Jakintzaren etikak orain arte, Izadiak, Naturaz baliatzea oinharri bezala izan badu, produkzio horren, ekoizpen horren betetzeko hirur indar erabili ditu gizonak: lehenik, gizon esklaboaren beso indarra, bigarrenik aberen indarra, azkenik Izadi hilak eta Mekanika eman energia. Lehenbiziko indarrak Aristoteles-ek zioen: esklaboa ezta gizona, beraz nola nahi erabil diteke". Pentsalaririk handirik gizaratearen garbitzeko, giza eskubide ta zuzenen ukatzaile, agertzen zaigu.

Bigarren indarraren erabilpenak, XVII.garren mendean eztabadak sortu zi-

tuelarik, Pascal frantses filosofoak eta ondok unibertsitari guzietan, oihukatu zuten "Aberea ez da izakia, tresna hutsa da, horregatik jan eta erabil diteke".

Hemeretzigarren mendean, azken indar berrien erabilpena haziko denean, garatuko denean Fisiokratekin hasi Ekonomiazaletaraino, Positibisten gaindi "Gizona Izadiak kanpo dago" erakatsiko da ta garai berean "Izadia ekai hutsa da gizonaren zerbitzuko". Aurrerapena progresua mitu bezala zabalduko da eta hunen izenean, makinaren bazkatzek batzuen aberasteko Izadia molda, alda, desegin dezakegu Izadiaren zuzenak ukatuz, hala nola egin zuten atomazko bonbaren aita diren, Einstein ta Oppenheimer-ek.

Beraz, euskaldun maiteok, unibertsitari ta filosofo handienak gizarte baten eskupeko jarri dira, berriztapen ta aurrerapen delako izenean.

Gure egunetan, baldin inor ezpada, benetan, progresuaren aipatzen eta gorai patzen ausartzen, idealismo gutiago duen eta beharbada kaltegarriago den mitu baten menpeko erortzen gara. Frantsesek ahoa bete "développement", españolek "desarrollo" eta guk "garapena" diogu. Gure Garapena, bai garapena, ez ote du Bizkaiko gara, lore baino gehiago Kastillako pena gehiago ekartzen?

Badakizue, ordea, garapenaren izenean oraingo unibertsitari jakintsu batzuk, industriatu erresumetan, Izadiaren eta gizonaren menpekotasuna onhartuerazi nahi ditugutela. Bai, gizaratearen salbapenak goiti behera, hierarkiaren bidez, jaitxi behar luke; horregatik erabat kapitalista, nahiz erabat komunista diren herriek gizonezkoen Gizadiarta naturaren Izadiari eskubideak murrizten ukatzen dizkiete, Onura Orokor baten gatik eta bat eginik, Industriaren garapena helburutzat harturik, beharçune sortzaile ta mundu zapatzaile bihurtzen.

Europatarrok, ekonomia mailan, hogei bat urte beranduarekin Ipar amerikatarren pentsa moldeak eta industriagintza jarraitzen ditugu, haien eredia okerretaraino imitatuz; berriz gizaratearen geroari buruz, Euskadin behintzat, batak Errusiaz, besteak Xinaz, azkenak Cubaz amets egiten dabiltaza.

Euskaldun unibertsitariak beste egitekorik behar luteke, beste helbururik, ideia horiek gizartea bortxaxetan badute ere: ez gara, ez ideologia baten zerbitzuko, ez eta oposizio hutsezkoak izanen ere, baina gure herriaren neurrian, gure Izadiaren aberastasunekin, **jende bakoitzaren garapena ta eskubideak, ahal bezain ongi, zainduko dituen gizarate egitura bat pentsatuz.**

Beraz, euskaldun unibertsitariok kontzientzia bat izan behar duzue; hortarakotz, uste dut, baldin Unibertsitateak kanpo teknika eta jakintzak ere ikas baditzakegu, eskolatuz guzietan ideien irazki ta garbetez lizatekean Euskal Unibertsitate berri batetik pasatu behar genukeala, gizonaren, izadiaren errespetua ikusteko, gizarate abstraktu baten baina. Hortarako ere gure gogoak aldatu

behar ditugu, itsumendu askok batetik bestera bortitzki erabili gaituztelakotz euskaldunak; geroen kontrasanekin aski ez bagenu bezala, kutsatu gaituzten estatu erdirakoi eta tormentatzaileen eskupetara erori gara eta nekez zutitzen, beren akatsak hartu ditugulakotz.

Nahikoa da, aski da, egun batzu Bilbo aldean emaita ikusteko, zer axola dugun euskaldunek izadiaz, lurraz, aireaz, uraz. Ez uste horregatik atzeraka nola nahi ibili behar dugunik ez eta aize garbidun otsezko herrietan gauzak hobeki joaiten diren ere: esate baterako, euskaldun artzaina aspaldianik zuhaitzaren etsaia da eta Nafarroa Beherako ta Garaiko mendi gorrituek erakusten digute, mendiak erretzeko, errakin egiteko ohitura Atxarra ezte berealaxe galduko.

Baldin atzera egitea ez bazaigu zilegi, ez zaigu komeni, beste bi dialektika berri nagusien menpean jarraitzea. Lehenak, industriakaria izenda genezakenak, dio "langille berriari lan emateko, zaharrari berriztatzeke, geroago ta gehiago lurra ta lurpea esplotatu, hutstiraz behar ditugula.

Teoria honek triumfalkeria kutsua du eta Euskadin behintzat, kaletar; modan dago urbano, hiritar hutsa izatea, ta auzokoa baino hiritarrago izan nahi horrek. Bai nahikunde horrek parre ta irri eragiten dit: Parisen jaio eta beti Parisen, orainarte, bizitu izan naizelakotz. Gogoarekin ari naiz askotan "Euskal Herriak eta euskaldunek ez dutelaki bezalako baten, leharrik berak baino kaletarrago den baten beharrik". Kaletar ta euskaldun on izateko, izadia, Natura, gutiatsi, mespretxu handian eduki behar da. Ez ahal zuen euskal kritika batek, aurrerapen handi bat bezala miresten euskaldun kaletar askok ez zituztelakotz pago ta haritza bereizten, ez hitzak ere ezagutzen (Gernikako arbola nonbait ezta haritza izendabana ondo) Zer poza! zuhaitzak izendatzeko arbola hitza baizik ez ezagutzea. Parisen eskola apur bat dugunok bereizkuntza horren egiten badakigu, probintzialkeria ta kaletaberri esnobismu hortara erori gabe.

Naski, hiritarkeria hori, beste keria baten aurkako, beste bati ihardokitzeko sortu da: ez ahal gara Euskal Herrian gehiegikeria jokuetan trebeak izan? Denbora batean, eta ezta aspaldi, gure herrialdea paradisu, urrezko garai ezagutu omen zuen; orduan egiazko euskalduna baserritarra zen ta hirian bizi zenak, euskaldun izateko, lan kasta horren ohiturak eta itxurak hartu behar zituen, euskaldun on diploma ardiesteko ezta euskal idazleek —Lizardi iritxi arte— moda hori zabaldu digute.

Orain, ordea, liburuak eta liburuzaleak utzita, lurrera itzuliz, hain zuzen Bizkaia ta Gipuzkoa eskualdeetan laster ez da baliman aski nekazaririk izango; azkenak, beren mendiak eta belardiak pinu basoz estal eta lañoari ihesi kalera doatza ke irestera. Eskierki, baserritar ta nekezari erdua gehiegi goratu eta goretsi da, gainera hala idazten zutenek sardea baino hobeko ezagutzen zuten luma ta ez zituzten beren liburuak golde batekin trukatu.

Halaz ere ez zaigu alderantzizko akatseren erori behar, bai baserritarrak ere euskaldunak baitira, jatorrak, egiazkoak, beharrezkoak besteak bezala.

Ez ahal dugu Euskaldunek azkenean kanpotarrek ekarri gehiegikeriekin, behin behin, hautsiko; gizartea bortitzki inarroteko ordez, ez ote dugu ikasiko gauzak argian ipintzen, bestelan ziberotar idazle batek idatzi zuena gertatuko zaigu:

"Eta gau batez, gordailuz, gudari, mugazaiñak hil eta guztieak Ameriketarat ihes egin zuten".

Ailedi ez holakorik gerta! Oxala ezadila hola gerta! Saia gaitezen, gogoak aldaturik, gure soluzio eskaintzen, dakigularik gure eta besteren akatsak zein diren.

Herri txipi batek ezin duela bere geroaren jakintza bat, filosofia bat eratzten eta beste herri industriatu guzien huts eta akatsetarat erortzea komeni zaigula, uste badugu, ez gara oraindik koloniakeriatik sendatu; utz ditzagun, modan dauden herri handi sistemak gure herriari guti egokitzen direnak eta egin Islandian bezala beheti gorako egitura berria, ekoizpena ezadin izan azkenean gizonaren kaltetan.

Hortarako, gogoak aldatu ondoren, **gure egiteko handiena Euskal Herriaren giza, bizidun, lur, lurpe ta itsaso aberastasunen inventarium oso, egitea da**, gero Siadeco-n, U.E.U.-n, eta Gazteizen hasi duten bezala, geroari buruz **plangintza hobekak** eskaiñi ontasun orokor horien zaintzeko.

Badakigu Unibertsitateak ez dituela, gizartea aldatzeko poter beharrezkoak eskuetan, baina haren, Euskal Unibertsitate berriaren eginbidea aginte guziri bere botza entzunaraztea, bai sindiakatei, bai alderdiei, bai sinismenei. Eztzugu bi mila urte horietan egin den gisa gizarte egoera baten buru garbitzaile izaten jarraituko, ez ukatzaile its ere.

Zeren baldin atzerrietan asmatzen dena teknika arloan eta jakintza alorrean, probetugarria izaten bazaigu, ez ahatz, ez gal gogotik ez dugula ez aurrerapen baten, ez berriztapenaren, ez garapenaren izenean, kanpoko erdua euskal zuhaitzean txertatuko —barkatu, txertoaren nekazar irudia, baina medikuntzan ere erabiltzen da —Holako txertoarekin gure Euskal Herri maitearen bizi agortzeko arriskua izanen dugu. Eskandinabiako herri txipi batzuek, gure aterabidea bila genezakeala erakutsi dituge. Baldin mundu zabalak ezpadaki ere eta Gernikako zuhaitzak Euskadin ematen baditu frutuak, gure nortasuna, gure heziara daukagu herri bizi bat izango gara, iraungo dugu, nahi dugun anaitasunean gozatuko.

Sermoi huts honetan nahikoa esan dut, zer behar lizatekean egin eta orain, nere buruari erran dezaiodala: "aski mintzatu haiz, isil adil!"

Txomin PEILLEN (Uzei-ekoak)
U.E.U.rentzat
Iruñean 1981.KO uztailaren 20.an.

TXOMIN PEILLEN-en Bibliografia

1957.- "Xuberoan artzain": Anuario de Eusko Folklore. Col. Aunamendi. Donostia. (Jean Peillen-ekin batera).

1960.- "Euskal Herriko Ekonomia": galdua

1962.- "Xikitoak": Igela, Paris.

1962.- "Azken Inkesta": nobela, argitaragabea

1962.- "Tximinuen segetua": nobela, galdua.

1962.- "Tristan eta Isolt": nobela, argitaragabea.

1964.- "Amodiozko baratzetan": Gure Herria, Baiona.

1965.- "L'élevage ovin dans le Pays de Soule": Bulletin du Musée Basque, Baiona, (Jean Peillen-ekin batera)

1967.- "Gauaz ibiltzen dana": 1964. urteko Domingo Agirre sariaren irabazlea. Kulista Sorta. Zarautz

1972.- "Itzal gorria": 1966. urteko Domingo Aguirre sariaren irabazlea. Kulista Sorta. Zarautz

1972.- "Recueil des recettes vétérinaires de Jauréguiberry": Bulletin du Musée Basque. Baiona.

1973.- "Gatu beltza". Gero. Bilbo.

1974.- "Latin-Euskara hiztegia. Anatomiaz": Elhuyar, Donostia.

1975.- "Heriotza biologgiaren ikuspegi-tik": Elhuyar, Donostia.

1975.- "Zaharreria, haren ezagupideak": Elhuyar, Donostia.

1975-76.- "Eske-pertsuen bilduma": Cuadernos de Etnografía de Navarra. Iruñea.

1976.- "Alberto Magno euskaraz": Bulletin du Musée Basque, Baiona.

1976.- "Jon Miranderen idazlan hautatuak": Gero, Bilbo.

1977.- "Emazte goxo bat": Beasaingo nobela laburren sariketako irabazlea.

1978.- "Jon Miranderen mitu-hiztegia": Hitzaldia, Deustua-Bilbo.

1978.- "Burla egiteko soinuak Xuberoan": Fontes Linguae Vasconum. Iruñea

1979.- "Galdera Xuberoako euskaraz": F.L.V. Iruñea

1979.- "Igela". Hordago. Donostia. (Jon Mirande-ekin batera)

1979.- Haurren ipuinen itzulpenak: "Errotaria Errege", "Bufalo Bill-en abenturak", eta "Mirko printzea".

1980.- "Gonzalo de Berceo eta euskara": F.L.V. Iruñea.

1981.- "XII mendeko euskal sineste zahar bat": F.L.V. Iruñea.

1981.- "Irinetik ogirat": Bulletin du Musée Basque. Baiona.

1981.- "Lexique Basque de l'Anatomie". Tesi doktorola.

IX. UEU AMAITU DA. GORA X. UEU! Honela entzun genuen abuztuaren lehen Iruineko Larraonan aurtengo UEU amaitutzat emateko egindako asanblada nagusian. Nire ustez ihazko asanblada nagusiarekin konparatuta aurtengoa aktibagoa izan da, jende gehiago hartu duela parte (idazkari-taldea ere pozago ikusi genuen). Izan ere, etorkizunerako arazo batzu plazaratu ziren han: unibertsitate ofizialarekiko harremanak, hurrengo urtean non egin, etab.

Baina zeozer falta zaigulakoan nago, gure zereginaren beraren kritika sakona, hain zuzen. Gizarte-mailako kritika, jakina. Txomin Peillen-ek aurtengo sarrera hitzaldian (ikus ale honetan) zioen:

"Nora goaz?" Noren alde? Zeri buruz goaz?". Kritika horren beharrea aurkitzen gara, eta etengabekoa izan behar da UEU udarako hamabostaldi batean Euskal Herriko txoko batean egiten den zeozer izan ez dadin. Nondik etorriak garen ba dakigu: Ustaritzetik eta hantxe egiteak zeuzkan kausetatik. Baina nora jogan gura dugu? Norekin? Noraino?

Ez dut UEUren historia osoa ezagutzen "mundu" horretan orain gutxi sartuta nago eta. Hala ere, eta oker ez banago, oso kritika gutxi egin da ohiturazko agerietaz gainera. Buruan daukat orain J.M. Larrazabal-ek Zehatz aldizkarian egindakoa, soilik. Idazlan honen bitartez neurea bota gura nuke. Egia esan lainoturik nago, ez dut dena argi eta garbi ikusten. Horrexegatik behar dut neurea bota eta zuena hartu. Elkarrizketa zabaldu bai noiz-bait UEUkide izan garenon artean eta bai kanpotik ibiltzen direnen artean ere.


Agirietan ageri ohi denez helburua hau da: unibertsitate nazionala, herritarra, euskalduna eta zientifikoa. Hitzek banaketak ideien zatiketa ezin ekarri dezakeenez eta hitzok elkarren arteko osotasunean aztertu behar direnez saiaturiko naiz nahastuta erabiltzen. Hitzak hutsak utz ez ditzagun.

Nazionala, herritarra, euskalduna, zientifikoa, denak dira izenlagunak "unibertsitate" hitzari erantsen dizkiogunak. Zer da, ba, unibertsitatea? Nondik nora gauza hori? Berdinak al dira Opus-ekoa eta Sorbona? Berkeley eta Errekaldeberriko unibertsitate herritarra? Zein tankerako unibertsitatea lortu nahi dugu?. ARGIAN (918) UEUko idazkariak horrela dio: *"Egia esan guk horretan ez dugu asko pentsatu"*. Eta hau ez da idazkaritzari leporatu behar zaion zeozer, ez eta gutxiago ere; hau denon konpromezua izan behar da, UEU zelan edo halan gorputzen dugunona.

Nire ustez garrantzi handikoak diren elemento batzu aipatuko ditut, Uztairitzen 1975. urtean egindako agerpenean azaltzen direnak:

"Eta, jakina, (Euskal Unibertsitatea) ideologia menpetzaile oro gaindituz ihardun behar du. Honek guztiak, funtsean, elemento hauek eskatzen ditu:

- Ikerkuntz eta hezkuntz tresna egoki eta jator baten lortzea.



**U.E.U.:
Urte
osorako
Ekintza
Ugalkorra**



- Gizartearen eguneroko bizimodua iker-tzea, eta gizarte moldean ebazle bihurtzea.

- Sortutako aldakuntza eta dinamikaren egiazko kontrola eta jabetza, herriaren eskuetartzea.

- Unibertsitatea ez da, bere baitan, hertsirikoz zerbait, produkzio eta gizarte munduari lotua baizik.

Udako Euskal Unibertsitatea bera ere, dinamika horretan uler daiteke soilki."

Zer puntutaraino lortu du UEUk "dinamika horretan" egotea, "eguneroko bizimodua


ikertzea", "ebazle bihurtzea", "produktzio eta gizarte munduari lotuta" egotea? Oker ez banago (eta oker banago ere neure pentsamendua da) hor aipatzen diren elementuak "funtztsa" dira eta hildo honetatik uste dut Txomin Peillen-en ideia: *"jende batoaren garapena ta eskubideak, ahal bezain ongi, zainduko dituen gizarte egitura bat pentsatuz"*.

"Ikerkuntza", "ebazle", "produktzio mundua", "aldakuntza" esaten da eta honek "zientifiko" izatera garamatza edo eraman beharko gintuzke. Honela dio 1975.eko ager-

penak: "Eguneroko problemez izkerketa eta azterketa zientifikoak burutuz, eta era berean, ebazpen egokiak proposatuz, zeren arazo sozial eta politikoez, gizarte baten ereikitzean, zientzia oinharriturik egon behar baitute". Egon behar dute eta daude. Ondo dakigu (?) zientzia ez dela neutrala (interrogazioa jartzen dut zeren honetaz ez dut uste UEU sakondu denik). Gurea ere ez da neutrala izango. Zientzia beharrak sortu bazuen ere, gaur zientziak sortzen ditu beharrak, kontsumismoa itsua, eta gizarte molde berri baten projektuan sartuta bagaude hau kontutan hartzekoa da.

Ezin beti egon besteen zientzia euskaratzen (ez nago horren kontra, unibertsalak izan behar dugulako, baina ez dut uste hori itsutsuan egin behar denik eta aurtengo UEU honelako gauza "extraterrestre" batzu izan omen dira), geureari ekin behar diogu, hortarako dauzkagun bideak eskasak izan arren. Teoria hutsetik atera eta praktikara joan, gure inguruak izan ditzakeen behar logikoei erantzunez. Inguru fisiko baten barruan bizi gara ("nazio" hitzak ezin ulertu dezake hori) eta berorrek jarritako muga (ez frontera) naturaletan barrenean bizi behar, "amaiera gabeko progresuaren" gizartea bukatzeaz dago eta. Honela dio Txomin-ek: "gure egiteko handiena Euskal Herriaren giza, bizidun, lur, lurpe ta itsaso aberastasunen inventarium osoa egitea da... geroari buruz plangintza hobek eskaiñi ontasun orokor horien zaintzeko". Filosofia "berri" batetan sartzen gaitu Txomin-ek, sartu behar azken bolada honetan sinisterrazi zizkiguten mito ekonomiko guztiak desmitifikatu baititu naturak. UEUk erantzuna eman behar dio egoera "berri" honi?

"Gizarte" esaten da eta horrek "herritar" izatera eraman behar gaitu. Baina ezagutzen al du Herriak UEU-ren zeregina? Honela zioen batek aurtengo asanblada nagusian. Nik neuk behintzat argi eta garbi daukat: baietzezetz. Jende askok ba daki UEU egoten dela uda aldean eta "euskararen alde" egiten duela. Hauxe penagarria, euskararen defendatzaile



eta goratzaile bezala, soilik, ikustea UEU! Ez da UEU zuzenean kalera irten (Lemoiz aurkako ihardunaldietan e.b.), egiten duena zuzenean kalera atera, liburuetan geratu da UEU-ren lana, eta hortik letorke ezagutzarik eza. Hortik letorke ere, UEUkide gehienak "ikasle ofizialak" izatea, burulana egiten dutenak, eskulanekoak oso gutxi diren bitartean. Hau dela eta, honela dio 1975.eko agerpenak: "Produktzio prozesuak eta hezkuntz prozesuak elkarren eragina edukiz, hau da, burulana eta eskulana batera aitzineratuz, lanaren zatiketa soziala arras gaitzesten eta kondentatzen dugularik". Hor ba daukagu beste desafio bat.

Baina ez, ez dugu bihurtu behar euskararen defendatzaile huts, ez eta "hizkuntz mundu honetan" geratu ere. "Euskalduna" esaten da, euskara duena, alegia. Baina izenlagun bezala erabiltzen dugunean, orduan zer esan nahi du? Zer da herri euskalduna? zer gizarte euskalduna? Zer unibertsitate euskalduna? Nire eritziz "euskalduna" esaten dugunean "euskaraz sortzea, kreatzea" esan beharko genuke: euskara jakinez eta beronen bidez eguneroko errealitatean zeozer berria sortzen, kreatzen, ahalegintzen dena. UEU eta irakaskuntza ofizialeak euskara hutsez azaltzeko (apunteak eta guzti). Euskara irakaskuntzarako tresna baliagarria dela frogatu dugu. Edozein gai azaldu dezakegu euskaraz ikasleen aurrean eta elkarrikvta sortu ere. Orain urte batzu, Parisen UCDko buru batek, buruhandi batek hobe esanda, aipatutakoa ("no me imagino a nadie enseñando física nuclear en vascuence" horrelaxe zioen gutxi gorabehera) zeharo gaindituta dugu eta ez bera izorratu arren guk aurrera jo behar dugulako baizik.

Baina ez ote gara maila akademikoegi batetan jausi? Hasieran euskara bera oztopoa bazen ere, moldatu, trebatu egin dugu eta gaur arazoa bestelakoa da. Ez gaitezen, ba euskararen defendatzaile huts gera? (eta aurtengo afalosteko mahai-inguru batean -euskal prentsa- entzun genuenez horrelakoa gertatzen da gehienetan). Era honetako militantismoa pasatuta dago. Euskara oina izan behar da ez gorputza. Euskaldunok gorputzu behar dugu?

Bildur naiz, eta parka nazazue akademiko-egiarena berriro aipatzearren, baina irakaskuntz mundu hutsean murgildurik egoteak kezkatzen nau. Aurrean daukadan parrifo bat idatzi gura nuke esan nahi dudan honen lekuko: "Ez, mundua ez da guretzat sortua izan; gu izan baino lehenago bera zen, eta gu berarengandik jaio gara. Ez gara, ez eta hurrik eman ere, uste dugun bezain jakintsu. Irakasle bezala, gaurko gazteak, guztiak martxan kontserbatu gura duten makina higuigarri honen zati bihur ditzadala eskatu didate, makina hori nondik nora doan ez badakite ere. Baina nik ezin hartu dezaket hori heziketaren helburutzat... Beñetan, ez dut uste zientifikoago izateak lagun gaitzakeenik, are gutxiago ordenadoreak erabiltzen baditugu, berak baitira inozo perfektuak. Egia esan, ez dugu geure zientzia hobatu behar; oso ona da eta gu oso jakintsu, baina zientziak, berak egiteko sortua izan ez del lana egin dezakeela sinistea gu kirten izatea baino ez da" (El idiota espabilado. Scorer).

Beno, amaitzera noa. Batzuk pentsatuko duzue nahastuegia dagoela roiloa, baina ez esan abisatu ez dizuedanik; gainera gure inguru hau ez al da aldrebestuegia ere? Eta horra sartu behar. Larrazabal-ek (Zehatz. 1978) horrela zioen: "Xeetasunetan sartzeko garaia etorri zaio UEUri". "Hobe da zikindurik bizi eta indartu, garbi garbi zokoren batetan agonizatu baino". Ni neu behintzat txirukak jartzera noa. Ba al zatozte?

Andutz



KIROLA OSASUNAREN ALDE

- Beste kirolek jokuaren taktikara adi adi egotea eskatzen dutelako.
- Bizitza osoan egin daitekeena da.
- Taldeka egiten diren kirolelan ez bezala, korrika egitean bere burua protagonista dakus korrikalariak, berak kontrolatzen duen egintza gisan.

Korrikalaria eta natura elkarganetzen ditu.

- Pertsona gogoz eta gorputzez zailtzeko eragile premiazkoa da.
- Norberaren indarrak hobeki ezagutzeko bidea delako.
- Kirol honen egitean, egilea ezagutuz doalako egunero zertarako den edo ez den gauza.

OSASUN ARRAZOIAK

- Erretzeko ohiturari kontra egiten diolako.
- Orogapean edo alkoolpean daudenen zuzpertzeta azkarragotzen duelako.
- Pertsonari autokontrola eta buruz lasaia egotea dakarkiolako.
- Gogo sendogarria eta lasaigarria delakoz.
- Kezkak xahutzen dituelako.
- Kirol guztiak bezala, osasun iturri delako.
- Aldez aurretiko medizinan, nagusienezakoa da.
- Oxigeno ahalmena handitzen du.
- Bihotzaren bonbeatzeko ahalmena handitzen du.
- Arteri presioa gutxitzen.
- Hobetzen du seksu bizitza.
- Handiagotzen bular auspoen ahalmena.
- Infartorako arriskua gutxitzen, txikiagotzen du.
- Handiagotzen duelakoz gogor egiteko indarra, abiadura eta zimeltasuna.
- Loditasuna galduerazten duelakoz.
- Atletak lo hobeki egiten duelako.

PEDAGOGO ARRAZOIAK

- Pertsonari kemen handiagoa ematen diolako.
- Egun hainbesteko garrantzia hartzen duen irakaskuntza intelektual informatikoan adierazpen naturalik sortzen ez delako mugimenduaren bidez.
- Lanari norberak ekiteko gogoa pizten duelakoz.
- Atletaren ezaugarri nagusietakoa, geroz eta garaipen handiagoak lortzen eta norbera hobetzen saiatzea, arduratzea.
- Bakoitzak bere bizimodua disziplinatzen laguntzen duelako.
- Kirol bera egiten ari direnen artean elkartasun giroa eta ahulenganako adiskidetasuna bizi erazten digulako anitzetan.

- Kirol eta Hezkuntza Fisikorako Nazioarteko Batzarreak, UNESCOren bidez, aditzera ematen die mundu osoko Gobernu eta erakunde publikoei zein osasungarria den hiritarren artean Atletismoa eragitea, suztatzea, bera delakoz kirolik egingarriena sortzen dituen ondorioengatik.
- Korrikan egitean ez delakoz inor baztertzen edozein izanik ere norberaren klase soziala, eta demokratikoena delako.
- Bakoitzak nahi bezain lehiatsu joka dezakeelako.
- Neke handirik gabe, nahi bezain emeki, egina izan daitekeelako.
- Bizimodu berria eragiten duelakoz.
- Korrika saioa edozein toki edo ordutan egin daitekeelako.
- Korrika bakarrik edo taldean egin daiteke.
- Beste kiroletarako premiazkoak diren ahalmenak korrika egiterakoan ezagutzen dira.
- Hasi berria ez du elkar jotzeko arriskuan jartzen.
- Hobetzen du lan egitean produktibitate.
- Nazioartean ezagutuena eta hedatuena da.
- Ez du beste jokuak bezala arau berezirik jakitea eskatzen.

50 ARRAZOI KORRIKAN EGITEKO ARRAZOI OROKORRAK

- Haurrak egiten duen lehenbiziko "kirola" delakoz.
- Aintzinakoena eta naturalena izateagatik.
- Eguneroko bizimodua neketsua eta aspergarria zaigulako.
- Kirolik errezena eta merkeena delakoz.
- Korrika egitea gizonari berez sortzen zaiolako.
- Besteek ez bezalako jokabide berezia sorrerazten duelako.

KORRIKA IBILTZEKO MODUAN ZAUDE?

Korrikalariak tamainu, adin eta ahal-menez, denetarikoa izan ohi dira. Hala-baina, urterik urte korrika egiten jarraitzen dutenek, badituzte denek antzeko ezaugarri berezi batzuk. Zu ez bazara korrikalaria, test honek erakutsiko dizu zu izan zintezkeen edo ez anitzetan amesten duzun korrikalari hori.

BAI EZ

1. Dagozkizunak baino bost edo kilo gehiago dituzu?
2. Erretzen duzu tabakorik?
3. Gustatuko litzaizuke kiloak galzea, betirako erretzeari uztea, bai bat eta bai bestea?
4. Noizbait kezkatu zaitu hihotzaren atake baten arriskuak?
5. Gustatuko litzaizuke arrisku hori gutxitzea?
6. Lehen ez bezain ongi zaudela nabari duzu?
7. Gustatuko litzaizuke lehengo saioa izatea?
8. Ez zaude nahi bezain pozik egiten duzun ariketa fisiko saioekin?
9. Hobeki lo egin nahiko zenuke?
10. Lo gutxiago egitea eta atsedean handiagoa izatea nahiko zenuke?
11. Lasaigo, erlaxago egon nahi zenuke?
12. Jaialdi handi batetara joatea baino nahiago zenuke arratsaldea bakarrik edo adiskide min batekin pasatzea?
13. Bilera handietan, zure burua arrotz nabari duzu?
14. Bakarrik zauden gehienetan, pozik egoten zara?
15. Beste pertsonak ez bezala inolako axolarik gabe joka ahal izateko zure buruaren jabe zara?

Hamabi galdera edo gehiagori BAIETZ erantzun badiozu, zu korrika egiteko gauza zara.

BAIEZKO erantzunak 8-9-10 edo 11 izan badira, agian gozatu ere gozatuko duzu korrika eginez.

BAIEZKOAK bostetik zortzirartekoak izan badira, ezin dizugu goikoa bera aseguratu, mereziko luke, ordea, aprobatarren baten egiteak.

BAIEZKOAK lau edo guttiago izan badira, probabilitateak ez daude zure fabore.

ATLETISMORAKO NAFAR FEDERAZIÓNDIA

Joxe Jauregik euskaratua.



ZAZPI KIROL: ZENBAT ETA ZERTAN LAGUNTZEN DUTE

Gaitasun Fisikoa	KorriZiklis IgeriTennis Esku Golf					
	ka moa		baloi			
Bihotz-arnasaren iraupena	21	19	21	16	19	8
Giharre iraupena	20	18	20	16	18	8
Giharre indarra	17	16	14	14	15	9
Zimeltasuna	9	9	15	14	16	8
Oreka (ekilibrioa).....	17	18	12	16	17	8
Pisuaren kontrola	21	20	15	16	19	6
Giharrez mugatzea	14	15	14	13	11	6
Digestioa	13	12	13	12	13	7
Loa	16	15	16	11	12	6
Guztira	148	142	140	128	140	66

EUSKALDUNBERRI BATEN BURUTAZIOAK

Euskara ikastea eragozten diguna ez da hikuntzaren "zailtasun" delakoa, ez eta Bandresek aitzakitza eman duen de-abrukeria ere ez. Jaiotzatiko euskaldunak bere hizkuntza ikasten du erdaldunok gurea bezain errez. Eragozpenen zergatia egunero ikusitako eszenetan bilatu behar dugu: kalean entzundako euskaldun amona haren ilobaren 'a mí, a mí' okerrak zuzentzen, 'niri, niri, niretzat' aparte esanez, umearen amarekin erdaraz jarraitzen duen bitartean hamabost urteko alabari porroaren kalteak salatzen dizkion aitak bezala, fariasen ke eta koinakaren zurrutadaren artean. Edo politiko burrukulari eta ezker-tiarrak bere emazteari erdaraz egiten dio aretoetan defenditzen duen hizkuntza etxean baztertzeko dispensa edukiko bailuen, jende arruntak haren hitzak serioki hartzen dituela eta Euskalduntzen Birekin irtengabeko borroka frustratzailea daramala ahaztuta. Edo emakume euskaltzale euskotar jator hori (Mussoliniren Italian Aberriaren Ama Medaila irabaziko zukeena) erdaraz elkarrizketa bizian basterritar aurpegidun gizakote horrekin: ez zaie euskaraz egitea ahazten elkar agurtzeko eta ume zaratsua isiltzeko.

Euskaldunberrri baten buruhauste nagusienetarikoa bat euskaraz noiz egin dezakeen deskubritzea da. Bere hitzegiteko gogoak zenbait truko erakusten dio beren burua izkututzen dutan euskaldunak bereiz ditzan. Erdal elkarrizketaren azken hitza bezala 'agur' edo 'adio' esaten du, ea ea 'bai' ozen bat jasotzen duen, euskaldun zahar baten zalantza gabeko zeinua. 'Bai' hori entzun duelarik, hurrengo aldiz lagun berdina topatzean elkarrizketari euskaraz ekingo dio gure ikasleak. Baina hemen ere euskaldun zaharren maltzurkeriak gaudituko du. Lehenengo hitz urdu-riak botatzen ditu neofitoak, euskararen lege soziolinguistikoak hausten dituela konturatzeko: erdal erantzuna jasoko du. Euskaldunek euskaraz umeei eta zakurrei soilik egiten omen diete berba, baina gure euskaldunberria laister ohartzan da bakoitzaren araudia askozak konplikatua dela, gaia, sekua, edadea, harremana, lehen aldiz elkar ikusi duten lekuaren giroa kontuan hartzen direlarik. Euskaldunberriari solaskideak erdaraz egiten dio ezezagunetik hizkuntza delako.

Egia esateko, euskara errekuperatu nahi duenaren euskal hitz urduri hoiek erizpide egokia dira, bere entzulea euskalduna den ala ez jakiteko, baina ez berak

pentasutako modura. Orduan, ekiniko lanari jarraituz, erdi esandako perpausaren hitzak zuzendu dituelarik, eta ahantzitako 'k' erantsirik, gure euskaldunberri galanta euskaldun zahar susmatuaren hitzen zai dago. Soinu txitxekari arraro hauen aurrean, erdalduna erreduna sentitzen da: 'Barka, baina ez dakit euskaraz' edo 'Zer ongi egiten duzun. Nik ahal izango banu...' botatzen du, ikasteari laister ekin behar diola gogoratuz, edo datorren irailean berriz hasteko asmoa sendotuz. Ez hola euskalduna: laguntzeko ala ikasteko gogoak ezabatzeke —inoiz ez dakigu— hitzen forma okertua konpontzen du, erdal antzeko hitzaren orde zabalak jatorra bilatzen du, euskara batua 'euskera de laboratorio'-tzat jotzen eta herriko euskara garbia ohoretuz. Gero elkarrizketaren gaiari erdaraz jarraitzen dio, jarraitzen badi, zeren gehienetan ikasteko asmoaz esandako hitz hoiek bultzatzen dute Francoren-pean hizkuntzak jasan zituen eraso eta telebistak aurki eskeiniko dion etorkizun apoteosikoari buruzko txosten bat ematera. Lehenengo aldiz txosten honek gogoia ematen dio ikasleari; pentsatzen du oraindik gaizki egiten duela eta gehiago ikasi behar duela; horrexegatik bere solaskidea, erdaraz mintzatzen dela. Baina hamaika aldiz gauza bera entzuteak egiten du.

Moeta honetako eszenen bidez ikasle heroikoa euskararen errealtatea ezagutzeko doa. Euskaldun gutxiak irakurtzen du, eta gutxiagok idazten, nahiz Caja Laboralaren -barka nazazu, irakurle. Lan Kide Aurrezkiaren txeki bat besterik ez izan. Eta idazten duenean, hainbeste ortografi-idiosinkrasiaz josirik uzten du lana, nekez irakurtzen baita. Ordurarte hitz ezezagun bat topatzerakoan, gure euskaldunberriak ez daki egiazko berritasun baten ala ortografia bitxi baten aurrean aurkitzen den. **Ez du erreztasun eta zihurtasunik topatzen, desordena baizik.** Baina ez bedi keza: **benetako aukera badu bere solaskideak** —betiko salbuespenak salbu, hots praileak eta euskal irakasleak, bi sail hauek bereiz badaitezke— gaztelaniaz egingo du, euskaraz egiten familia edo egoeraren arau soziolinguistiko izkutu batek behartzen ez badu.

Noizean behin orduan, euskarazko elkarrizketa aurrera joango da: baina honek ere ez du dena konpontzen; gure euskaldunberriak ez ditu bere entzulearen erantzun, galdera, baiezpen eta puntak ulertu-

ko. Hortxe dago euskalkien arazoa. Eta buruhauste horri irtenbidea emateko urteak beharko ditu, inongo testuliburuk ez dakartzan aditz formak eta laburriketak pixkanaka bururatuz, hurrengoan berrezagutzeko nahiz eta ez erabili.

Beharbada, guzti honen aurrean, Uliseren pekatuaren oroimena bururatzen zaio gure euskaldunberriari. Dantek kontatuz, Ulisek inperuan amaitu zuen, helburu zuzenik gabeko jakituna bihurtu zelako. Bere bidaietan ahal zituen munduko esperientzia guztiak ezagutzera joan zen, ezagutze hutsagatik. Danteren ustez, ezaguera horren aplikapen zuzenak Jainkoaren zerbitzuan izan behar zuen. Nola Ulise, hola euskaldunberri? Hainbeste ahalegindu eta gero, erabili ezin daitekeen eta ia inon aplikatzen ez den jakituria eskuratzen ari dela konturatzeko. Eta funtzio gabeko mintzaera egiazko hizkuntza dela nork sinistuko du? Beraz, egoerak edozein ikasleri gogoia kenduko dio, Uliseren jakiteko obsesioa ez badu.

Azkenean edozein euskaldun zaharrek bezala, eta euskararen egoera diglosikoa betiketuz, oso giro mugatueta erabiliko du ikasleak: ezagunekin, intimidatzen, gai arruntei buruz.


Euskara bere ghettoan geratuko da. Eta behar denean, erdarara joko du, bere ideiak esangaitzak bihurtzen direnean. Bera ez da "más papista que el papá" izango. Euskaldunek euskaraz egiten badiote, euskaraz erantzungo die, bestela ez. Eza-gun berriei jakinaraziko die euskaraz badaikiela, baina ez du euskararen erabilera bultzatuko. Euskara menperatzea plazer pribatu batetara mugatuko da, eta lehen momentuetan animatu zuten helburuak —aintzinako hizkuntza zapaldua berreskuratzea, euskararik gabeko Euskadiri eza, herri-nortasun galdua birbaieztatzea— mito hutsatzat jotzen ditu, euskaldunek berek hustutakoak askotan.

Eta euskararen geroa ulertzeko Irlandaren ereduari begiratuko dio, mutandis; Espainiako konstituzioak ez badu elebarkarreko euskaldunak permititzen, euskarak bere bizitza independenterik nola lortuko duen bere buruari galdetuz. Telebistaren programazio-orduekin neurtzen den bizitasunak ez dio esperantza handirik eskeintzen.

IÑAKI

AMANDRIAREN

IPUINA



Harriolan, gure amandreen ipuinek oso garrantzitsu haundia izan dute beti.

Sorginen kontuak, ohitura eta sinismen zaharrak oso zabaldua daude, eta bai baserrietako tximinietan eta bai ere kaleko sukaldeetan, ipuin hauek ahoz aho biziak iraun dute gaurko egunetaraino.

Nahiz eta lenenagoko ohiturak erdi galduak egon, bere oroimena kristau simismen berrietan egokitu eta finkatu egin dira. Lehenagoko sorginak, jentilak, momorroak, lamiak... San Juanen suekin eta Aste Santuaren elizkizunekin nahasten dira.

Ikus dezagun ba, Bidetxulo baserriko Iñaxi amonak, bere suaren ondoan, kontatu ziguna.

Gure herrixkan, Pazko igandean hildakoen berpiztearen simismena izan dugu beti.

Gure arbasoek beti esan digute, egun hortan kalera ez ateratzeko. Eta honela egin dugu beti.

Urtero, Pazko igandea iristean, herriko elizan ospatzen dugun mezatarara ez ezik, ez gara sekula inora irteten.

Etxeko txoko batetan pizten genuen kandela, santua jarri, eta otoitzak egin. Honela pasatzen genuen eta oraindik pasatzen dugu eguna, otoitza eta erlijioso abestien artean.

Bitartean, kanposantuko hilobiak irekitzen ziren, eta gure arbaso hilen gorputz gizarajoak irteten ziren, bereak izan ziren etxeetara itzultzeko.

Bidean bizia ikusten zuten, guztia galduta zegoen, eta igandea pasata hezur eta gorputzerdi ustel hoiekin batera kanposantuaren lur azpian bukatzen ziren.

Bainan herrira etorri zen maixu erdal-dunak ez zuen gure gauzetan sinisten, eta horregatik Pazko Igandea iritsi zenean, atera zen kalera gure sinismenak desafiatzeko. Kanean gora kanean behera ibili zen goiz osoan beste munduko gauzarik ikusi gabe. Eguerdian bazkaltzeko etxeratzen zenean, bere etxeko atea irekita ikusi zuen. Etxean korrika sartu, eta bere andre eta semearen buruak moztuta zeuden lur gainean, eta bere senideen gorputzen azpian izugarritzko odol putzua.

Putzutik ateratzen ziren odol tantei jarraituz, kanposantu barruraino heldu zen. Odola hilobi zahar eta zikin baten aurrean bukatzen ziren.

Hilobiaren gainean sega odoltsu bat ikusi zuen, eta hilobian zegoen gurutzeari idatzita honelako testua irakur zezakeen.

“Hemen datza Antxon Orkoleta Atariondo etxeko azken jabea”.

Hau irakurrita, maixu berriak ulertu zuen dana. Atariondo zen bera bizi zen etxeko izena, eta Antxon Orkoleta bere aintzinako jabea; eta Harriolako baserri-tarrek kontaktatzen zituzten ipuinen egia nabarmen egia agertu zitzaion. Baina oso berandu zen.

Ane Miren Urbiztondo



ERRAMADANA: OHITURA ALA INPOSAMENDUA!

Aurten, uztailaren 2an ikusi zuten ilgora Afrikako ipar-mende baldean; jendea berehala hasi zen hurrengo egunetarako planak prestatzen: aurrerantzean; eta 28 egunetan zehar, Erramadana zen. Guk ba geneukan horren berri hara joan aurretik, eta beraz, burubelarri ginen; nola gertatuko zen errealitatean teoria hutsean eza-gutzen genuena? Nola konponduko ginen gu?

Erramadana zera da, urtearen (urte musulmana) ez dakit zein hiletan, musulman direnek ezin dute ez jan, ez edan, ez erre, ez larrurik jo, etab. goizeko ordu bietatik eguzkia arratsaldean sartzen den artean, aurten 7,45etan gertatzen zena. "Onak" izan behar dute, eta lagungarriak, apalak, lasaiak...

Lehen egunean ez ginen gu altxatu goizeko ordu bietan beraiek hartzen duten gosari itzela ikusi edo hartzeko: ordu batetan oheratuak ginen, geundeneko etxe-koak itzartuta geratu ziren artean. Goizean, denak zeuden etxean etzanda, egun luzea ahaleginik egin gabe pasatzeko asmotan.

Kaleetan, merkatuetan, milaka pertsona erosketak egiten. Goxokien piloak mi-resgarriak ziren, eta fruituak barazkiak, okelak,.. Eta jendea han, begiratzen, erosten, eztabaidatzen, jeneralean bizitza

egiteko daukaten patxadaz, baina itzaliago oraindik. Masokismo hutsa egun osoa janaria erosten, afaria prestatzen, zokoetatik paseatzen ematea.

Guk ere ez genuen bazkaldu, ez eta kalean edan ere ez: ez genuen jendea tentatu edo probokatu nahi.

Gabean, 7 t'erdia aldean, etxeetako erritmoa hautsia zegoen, eta denok prestatzen ginen mahai baten inguruan "harrira" (hamaika gauzaz egindako zopa edo purea) eta datileak jateko. 7.45etan, puntu-puntuak, kanoiak entzun genituen Rabat-eko etxe eta leku guztietan, imitatuz) zopako untzien gainera. Ezer ez zen geratzen 2 minutu beranduago: baraua apurtuta zegoen; ordutik goizeko ordu biak arte, janaria non-stop, ganbeluen antzera, urdaila egun osorako betetzeko.

Egunero ikusi ahal ziren mogimendu berberak. Erritualak ziren. Guk nola edo hala, kalean ez jatera saiatu ginen, baina barruan geundenean, eta beroa gora zihola ikusita, fruituz eta urez betetzen genuen kolkoa egun osoan zehar.

Bitxia zen 7'erdietatik 8ak arte kaletik ibiltzea: mogimendu itzela somatzen zen kalean baraua apurtzeko zegoenean, tentsioak, jendea korrika, diskusioak, dendak ixten; kanoiak edo sirena (segun zein

herritan) entzun bezain laster, denok korrika etxera, edo alboan prest guru egon zintezkeen kaletik zebiltzan edonor atzerritarra zela; 10 minutu pasatuta, berriz, jendea hasten zen kaleratzen, ate eta jatetxe guztietatik hibaia osatuko zuten jende-errekak irteten zirelarik. 8 t'erdietarako kale guztiak zeuden jadanik beterik; jaia hasten zen, egun osoan hutsik ikusten genituen tabernak eta terrazak, bete-beterik. Zeinbatek esaten zutenenez, eguna hasten zen.

Gu lehen egunetik saiatu ginen ea benetan erramadana egiten zutenentz jakite-ra. Hori egiteko bidea, galdezka ibiltzea ez zela laster somatu genuen. Denok, gazteak barne, enpeinatzen ziren gu konbentzitzen, denok bide ziren musulman onak. Edo izan behar, gutxienez.

Baina ahaleginak egin eta gero, ikusi genuen nola egiaztatu beraiek esana; ez, gehienetan jan eta edan egiten dute, baina izkurturik.

Gu pixkanaka hegoalderantz, Sahararantz, joan ginen, eta hara hurbiltzean, beroa eta lehortasuna gorantz zihazozen geldigabe. Guretzat bizio bihurtu zen edatea; ura, ura, mesedez. Jan ez, hori ondu ulertzen genuen; hain bero dagoenean, ez da posible fruiturik ez dena jatea. Baina,



nola pasatu egun osoa edan gabe?

Hegoaldean, eta jendea zibilizaziotik at pixkat gehiago dagoenez gero, ireki egin zitzaizkigun zenbait, eta benetako ohiturei buruz hitz egin ere: etxean gelditzen diren zaharrak, edo jeneralean, lanik egiten ez dutenek, baraua egin dezakete, baina edozein lan egiten dutenek, ez. Beraz, bi konponbide aurkitu dituzte, edo Erramadana aste batetan edo baino ez egin, edo gauz lan egin, eta egunez, lo. Baina egunez jan, edan edo erretzekotan, izkututa, etxean, edo ezagunen artean soilik.

Zergatik hainbeste beldur besteek ikusteko? Erramadana, Marokon, legez egin behar delako. Eta agirian apurtuz gero, gartzelara joan zaitezke, eta han denboralditxo bat emanez gero, burusoil irten zaitezke adibidez, jende guztiak jakin dezan.

Dena den, hemen kontatzen ari naizena, Marokon ikusi ahal izan dudana baino ez da.

Beste herri musulmanetan gertatzen denarekin konparatzeari interesgarria deritzot, zeren bakoitzaren jarrera nahiko ezberdina baita.

Herri integristenetan, Arabia

Saudiarrean edo Libian adibidez, gogor ekiten diete Islameko ohitura zaharrei, eta gogor zigortu ere hortaz pasatzen direnak.

Hala ere, intolerantzia nahiko orokorra da, eta Afrikako Iparraldean erramadana egitea ala ez aukera daitekeeneko estatu bakarra Tunezia da, hots, europaizatuena alegia. Han zure erlijioa aukeratu ahal duzun modu berberean, berari loturiko egin-beharrak ere aukeratzekoak dira.

Argelian bertan, interes osoa daukate algeriarrek Islameko legeak betetzeko; jendea, eta gazteak batez ere, nahiko pasatzen dira, baina erakutsi gabe, berriz ere. Duda badaukate, pasaporte eskatuiko dizute kafe batetan atzerritarra zarenentz ikusteko. Konbentziturik daudenean, berriz, problemarik gabe serbituko dizute nahi duzuna; bestalde, hil egin zaitezke egarri edo gosez, eta deskuidatzen bazara, komunean ere ezin izango duzu edan: frauderik ebitatzearren, moztu dute agian ura.

Hau dena ikusita, aberekeria hutsa dela pentsa daiteke; hala ere, azken urteetan horrela pentsatzen ez duten zenbait pertsona topatu dut eta nahiz eta oraindik konbentziturik ez egon, nolabait aldatu da nire ikuspegia. Pertsona horiek higiene-

neurri gisa; ikusten dute Erramadana hila-bete horretan zehar, gorputza garbitzeaz aparte, bizitza sano eta gogorra egiten ikas daiteke. Ba dirudi poluzio ideologiko txikia eduki behar duten herrixketako biztanleek edota nomadek ere, gustora egiten dutela Erramadana, eta gainera, ahal legin handirik gabe.

Ikuspuntu hau extrapolatuz, gogora gaitzke zenbait naturistek gomendatzen duten barau-egunaz (bat astean, bat hilean, ...) Gorputza garbitzeko eta lasaitzeko dela esaten dute.

Agian, honelako helburu bat zuten ere Erramadana asmatu zutenek; baina txarto atera zaie, zeren kasu gutxitan ez ezik, zerrera mugatzen baita Erramadana, eguneko ordu luzeak jan-edan gabe igarotzeko gauean zehar, geldigabe, jan eta edan, gorputza bortxatuz eta ataskatuz.

Edonola ere, interesgarria da aldi hori estatu arabiar batetan bizitzea; errazagoa da orduan erlijioaz edo ohituretzat mintzatzeari, eta jendearen portaera soziala aztertzea; baina ez da erraza beraiekin Erramadana hertsiki egitea. Ez arduratu, ez dago problemarik, fedegabeei pekatu egitea onartzen digute eta.

Maria Jesus Esteban

"Gameilu" batzuk egon arren, Donostia, Jazzaldian zehar, ez zen basamortu bat izan, jai bat baizik. Alde zaharreko kaleetako ertz guztietan musikari gazte talde batzuk gure egunero bizitza alaitzen zuten, diru pitin bat eskatzen zuten bitartean. Bulebarreko kioskotik jazz nota batzuk ateratzen ziren deskuidatuenari hiria jazzaldi batetan bizi zela ikus arazteko. Hitzaldi eta filmeek kultur ahogozo bat jartzen zioten giroari, Belodromo ondoko ogitarteko saltzaileen gingaz bukatzeko.

Kontrola dezagun geure irudimena eta goazen mamira.

NON STOP LEHIAKETA

Zerbait nabarmendu beharko bage-nu aurtengo amateurren txapelketan, parte hartu duten taldeen kalitatea azpimarratuko genuke. Lehenengo saio honetan 2 taldek jazz tradizionala jotzen zuten, beste lauek moderno joz. Eta hemen hasten dira arazoak. Klasi-koak jotzean, oso ondo egin arren, ezin dela talde hauen sormena balioztatzea denok dakigu, moderno jotzen dutenekin konparatuz gero, berea birt-sorketa baita. Eta hau jazzean oso garrantzitsua da. Gainera txekoslovakiar taldeak ez zuen bere jokeran bero handirik jarri, notei eta ez giroari begira egonik. Lund Jazzkapel suediar talde-ak lortu zuen, berriz, entzulegoarekin komunikapena, gaiak oso ondo joz ere bai.

Lehenengo saria Michael Klotchkoff Hirukotearentzat izan zen. Talde honen oinarria M.K. pianojolea dugu. Bere jazz oso atsegina zen, Bill Evans-en antzekoa zenbait unetan, nahiz eta Klotchkoffek Evans-ek baino guttiago hazjardun. Epai-mahaikoentzat erabakia ez zen erreza, Werner Pusch Seiko-teak, taldetzat, oso trinko zela erakutsi baitzigun.

Madrilgo Orgon taldeak aipamen berezi bat izan zuen "hainbat ahalegin eta osotasunez konbentzioskoa ez den musika bat jotzeko erronka onartze-agatik".

Egia esan, 6 talde asko da gau batez entzuteko, eta gehiago bakoitzak bere joera badu. Dena dela, gau interresgarri bat izan zen, taldeen kalitatea kontutan hartuz.

EUSKAL JAZZ TALDEEN LEHIAKETA

Egia esan eta iazko jardunaldiarekin konparatuz, aurtun, 2. txapelketa honetan parte hartu duten taldeen kalita-



DONOSTIA JAZZAREN URRATSETATIK

te maila askoz hobea izan da. Gehienek jazz jo zuten (dena dela etiketa arazoa ez da erreza mugatzen) eta kontutan hartzen baditugu ere IZ diskatxeak argitaratu dituen 3 diskak, itxaropen aire freskua sartzen ari dela euskal musikan aitortzeko.

Lehenengo saria ALEN taldearent-

zat izan zen, eta benetan hoberenak izan ziren, eta zer esanik ez iazko saio-arekin konparatzen badugu. Ez dut aipamen hau bukatu nahi Pepe Zubiria pianojolearen jardunaldia eta Ana Berjeranoren abotsa miragarri eta xarmagarria azpimarratu gabe. Anaren kasuan, Ella Fitzgerald txiki batekin to-



patu gara eta berak duen indarra eta gozatasuna entzutean sentitu genuena aspaldidanik ez genuen hain biziki sumatu.

Klabin Komik-entzat izan zen bigarren saria. Une batzuetan merkataleztapenari amore ematen ziotela iduritu zitzaidan.

Aurten euskal jazzak aurrerapen nabaria izan du, eta dudarik gabe, Donostiako Jazzaldiak talde hauei bere markoan eman dien jotzeko aukerak badu hor zer esanik. Aurrera denak eta ea datorren urtean halako zerbaite ere esan dezakegun.

MC COY TYNER: ART TATUM BERRIA

Pianojole hau 1938.ko Abenduaren 11-n jaio zen, Philadelphian, bere ama izanik musika munduan sartu zuena. 17 urte zituelarik John Coltrane ezagutu zuen, eta biok elkarrekin jotzea erabaki zuten, noizpait Coltrane talde bat osatuko balu. Bitartean Art Farmer eta Benny Golsonen Jazztet-ean jotzen

hasi zen, "A love supreme"-ren egileak deitu zuen arte. Coltraneekin jarraitu zuen 1965. urtera arte. Beste musikaritari batzuekin ibili zen eta 1972. urtean "Sahara" diska grabatu zuen. Handik aurrera bere ospea handituz zihoan, "Milestone Jazzstarsin Concert" eta "Together" berak grabatu dituen diska inportanteenak izanik. 1975. urtean "urteko musikalaria" gogartua izan zen.

Ikarurleak lerro hauek irakurri arte egun asko igarako da, Abuztuari dago-kion alea ez baita atera. Horregatik kontzertuetaz ez dudala gehiegi luzatu behar uste dut. Donostian eskeini zigun saioa ez dugu hain erraz ahaztuko. Eskuak tekladi gainean botatzen ditu, bere trebetasunaz pianoari zartada kontzeptu bat emanaz, ia hazjardun gabe, Taldearen jardunaldia oso ona izan zen, Ronnie Burraje bateriajolea nabarmenena izanik.

CHICK COREA AURTENGO STAR

Chick Corea Massachusetts-eko Chelsea jaio zen. Aita musikalaria zuen eta honek sartu zuen musika munduan. Stan Getz, Mongo Santamaria eta Herbie Mannekin jo ondoren, 1965. urtean bakarrik jotzea erabaki zuen. 4 urte pasa ondoren, Miles Davis-ekin zenbait diska grabatu zuen.

Gero "Return to forever" taldea eratu zuen, baina inoiz bere erara mugatu gabe, musikaren bidez une bakoitzean bere barruko egoera hobeto adierazteko. Pianojole hau aurtengo Jazzaldiaren izarra izango zela garbi zegoen, eta horrela bakarrik uler dezakegu kontzertuan zeuden 15 mila pertsonen egona.

Chick Corearen gaiak beti birsortaketa baten sentiberak izaten ohi dira. Bereiztasun honek eta musikarien yoyotasunak oso saio egoki bat lortu zuten. Batzuk, ene ustez, ez zuten Chick-en musika gehiegi ezagutzen eta "marcha" pittin bat espero zuten. Hau ez zen, hasieran behintzat, pianojole honen asmoa eta denetatik egon zen jendeak, zenbait unetan, baldintzatu

zuen kontzertu honetan. Dena dela, lortu zen ekilibrio horretan oso jazz ederra entzuteko aukera izan genuen, bukaeran batipat, Roy Haynes bate-riajoleak eta Joe Henderson-ek batipat, ederki laguntzen bait zioten piano-aren soinuari.

ART PEPPER ETA WOODY SHAW: BI JOERA SAIO BEREAN

Art Pepper 1925. urtean jaio zen. 9 urte zituelarik klarinetea jotzen ikasten hasi zen, saxoarekin jarraituz. 1943. urtean Guz Arnheim, Benny Carter eta Lee Young-ekin jotzen hasi zen. Gero eta 1952. urtera arte Stan Kenton-en taldearekin jo zuen noiz behinka. Drogekin zenbait arazo eduki zuen, baina leheneratuz gero, berriro hasi zen zenbait taldekin, Buddy Rich-en orkestrarekin esate baterako, saxoa joz.

Woody Shaw Cardinan orain dela 37 urte jaio zen. Willie Boboren taldean sartu zen, tronpeta joaz, Eric Dolphyren taldean bukatu arte.

Bi musikari hauek ezezagunak ziren ia ia gure artean. Art Pepper-en saxoa entzuteak Charlie Parker eta Coltrane-n eraginak noraino irits daitezkeen ikusteko balio izan zuen, kartzelatik pasa ondoren Art-ek askatasun osoa lortu nahi baitu. Bere joera ez da mugatzen jazz cool hotzak auresuposatzen duen bidera, "Besame mucho" eta beste zenbait antzeko doinu entzun ahal bait genuen. Bere lirismoa barruraino iritsi zitzaigun, giroan ahogozo ona utziz.

Woody Shaw-en saioa ona izan zen ere, baina kontzertuaren iraupena eta bere musikaren monotoniak ez zuten hain giro beroa lortu jendearengan, bere doinuaren kalitate maila eztabaidan jarri gabe.

JAZZEN SWINGA EGIKETAN DAGO, ETA EZ MUSIKA TEXTOAN (D. Ellington)

La Romanderie orain dela 8 urte osatu zen, 7 ijito alemaniarrek taldearen arima izanik. Beren asmoa, diotenez, Django Reinhardt-en musika jotzean datza, Stephan Grapelli, Ellington eta Gershwinen doinuak kanpoan utzi gabe. Baina, ene eritziz, saio polita izan arren, ez nuke nik hura jazz zenik esango. Doinu guztiak nahiko stand ziren, eta gehienetan inprobisaketa falta zela nabaria zen. Dena dela musika gozo hori entzutea oso atsegina zen, eta gai gehienak, gainera, oso ezagunak ziren.

Aurtengo Jazzaldiari ALL STARS



BIG BAND-ek jarri zion urrezko kriske-ta. Nahikoa zen bere 16 musikariaren artean Clark Terry, Harry Edison Al grey, Buddy Tate eta Joe Newman-en izenak ikustea, kontzertu galant baten aurrean aurkitzen ginela jakiteko.

Nekerik gabe igarotzen ziren minutuak big band hau entzuten genuen bitartean. Ezin da orain hauen maisutaz ezer esan, hitzek ez baitute giro hura isladatzen. Horrelako talde baten musika entzun behar da, begiak itxirik, giro horretan murgildurik une hori gogoan betirako grabatzen. Ezin zitzaion Jazzaldiari amaia hobeagorik eskeini. Gainera, horrela, jazz moeta guztien artean beharrezkoa den ekilibrioa lortzen zen, hara egunero joaten ginen jazz-zale guztion atseginerako.

OHARRA

Ez dut bukatu nahi kezka bat azaldu gabe. Informazio orri guztiak, hasierako bat ez ezik, erderaz iritsi zaizkigu prentsakoei. Nik ez dakit antolatzailleen asmoa langabezia soluzionatzea zen ala ez, baina informazioa erderaz etortzen bazaigu, euskal komunikabideetako guztiok orri bera euskaratzen hasi behar dugu, bakoitza bere aldetik. Biderketa ederra dugu aurrean, batek egin beharrean, denok lan berdina hartu behar badugu. Hau, zailantzarik gabe, ez da arrazoin baharra, etab denok eskatu behar dugu beti, informazioa, guttienez, bi hizkuntzetan bidal dezaten, baina ezin da, besteen ondorioa den arazo hau ahaztu.

Xabier Portugal

BALEAREN ARRANTZA ETA "EUSKERA- ISLANDERA" HIZTEGIA

Euskaldunentzat, balearen arrantza balea bezain zaharra da, edo hobeto euskalduna bezain zaharra.

Baleak Kantauri Itsasora banan banan etortzen ziren. Ama bere umeeekin, eta batzutan ere, arra emearen atzetik.

Denborarekin, baleak gure itsasoetan urritu eta agortu zirenean, euskaldunak Galizia aldera joateko beharrean aurkitu ziren, eta hortik Islandia eta Iparameriketako itsasertzetara.

Lehenengo bale-arrantzaleak euskaldunak izan ziren; Gero piskanaka piskanaka beste herri batzuk hasi ziren ere balearen arrantzan.

Balearen aztarrena jarraitzen, gure haroko 1.000 urtean gutxi gora behera, euskaldunak Ameriketara iritsi ziren. Horko biztanleekin izan zituzten kontaktuak salmenta eta erosketarenak izan ziren bakarrik. Honengatik gaur, gure arbasoen ibilaldiaren frogak ematen ez da lan erraza.

Anekdotaren munduan badago zer-bait. Iparameriketako eskimal batzuei bere hizkuntzaz "zer moduz?" galdetzen zaienean, bere bizkuntzaz "oso ondo" esan nahiean euskaraz erantzuten dute "apaizak bezala". Hau ezin da kasualitatearen hegaletan utzi, nahiko nabarmena bait da.

1-BALE ARRANTZALEAREN OTOITZA.

1.650ean, Joanes Etcheberry zuberotarrak bildu zituen bertsoen bidez, gure arbasoek itsasoetan eraman zuten bizia ulergarriagoa egiten zaigu.

"Biziaren gatik degu arriskatzen bizia arren bada egiguzu, jaun putxanta grazia sarri gelditzeko arrain itsasoko handia gutarik zuartu gabe bere indarrak, segadetan dabillala buztan edo bulharrak, edo chalupa irrauli gabe gillaz gañera, edo berekin eraman gabe urtan behera begira diazazugu printzipalki bizia".

"Gure indarrak etziren deus bunenen aldean zure fagorea dugu senditu konbatuan".

2- XVII - GARREN MENDEKO "EUSKERA-ISLANDERA" HIZTEGIA.

Amsterdamen 1.637an, Dicolas Gerardus Hondricus Deen-ek argitaratu zituen bi glosario latineraz idatzitak. Eta glosario hauetan Euskeraren hiztegi labur bat azaltzen zen.

Lehenengo glosarioan 517 hitz agertzen dira, eta bigarreanean 228. Hitz hauek lapurteraz daude, eta honengatik Vestifirdin herrialdean bizi ziren euskaldunak Donibane Lohitzunetik joanak zirela suposatzen da.

Glosario hauetan euskal artikularen bereizitasunak aztertzen dira. Badago ere infinitiboaren ikasketa sakon bat, diptongoak, konsonanten taldeak, eta soinu konposatuak ikertu ondoren, hiztegi labur bat ikus daiteke.

3.- BALEAREN ARRANTZA

- Dena hasten zen talaietan sua piztutzean. Gero hasten ziren ezkilak joka, eta bale-arrantzaleak bere harpoien bila joaten ziren korrika. Bazegoen dena prestatua.

Zarauzko Talaimendi, Getariako San Antton mendikoa, eta Donostiako Ulián zegoena, ziren garrantzitsuenetako talaiak!

Balea harrapatuta, kaiara eramaten zen, eta hor eskribau eta alkatearen aurrean, antolatzen zen bere salmenta!

Bale arrunt batek, 4 kintaleko 80 upela ematen zituen, eta kontuan izan behar da kintale bakoitzak lau arroa zituela.

Haragia gazitzen zen, eta gero frantsesei saltzen zieten. Balearen bizarrak emakumeen jazkiak ornatzeko saltzen ziren, eta hezurak eserlekuak, leiho eta ateen markuak egiteko oso gutiziatuak izaten ziren.



4.- GLOSARIOEN HIZTEGIA

Azaltzen diren hitz gehienak, ikus dituzakegun bezala, euskaldunek balearrantzan erabiltzen zituztenak dira.

EUSKERA	ISLANDERA	EUSKARA BATUA
---------	-----------	---------------

gisona	madur	gizon
emastia	kona	emazte
hara	bara	haur
eskonduba	hion	ezkondua
uncia	skip	itsasontzi
pilotuba	styremadur	piloto, timonel

laguna	skipsfolk	lagun
ogia	braud	ogi
arnau	vyn	ardo
ura	vatn	ur
esnia	miolk	esne
balia	hoalfishur	bale
billara	tobach	tabako, belak
elisa	kyrkia	eliza
etsia	hus	etxe
galsa	buxur	galtza
galsa	nabuxur	galtza barnekoa
barnigua		koa
orassia	kambur	orrazi
debossiunia	lestrakbok	liburu, debkzioario

januna	oflata	hostia, jaunona
--------	--------	-----------------

enia	perfur pu pab	nerea
ilia	har	ile
begigia	augu	begi
sudurra	nef	sudurra
koccotsa	haka	kokotsa
leppua	hals	lepo
bisarra	skego	bizar
bularra	binga	bular
sabilla	mage	sabela
sobralda	oxl	sorbaldala
biscarra	brigurr	bizkar
escomutarra	vflidur	eskumutur
miralia	stor speigell	ispilu
escuba	hond	esku
hartsa	biandyr	hartza
arasaldia	kvoldd	arratsalde
bigiar	a morgun	bihar
sacurra	selur	itsas-txakurra, foka

arensuria...	hakal	marrazo, tiburoi
--------------	-------	------------------

parruca	pirrich	hile-ordeko
sapardalaco	snoppungur	masaileko

Eta salmentetan lana errazteko, Igarren glosarioak euskal zenbakiz zerrenda eskeintzen digu.

BAT, BIGIA, HYRU, BORTS, SE SORCI, BEDHERACI, HAMAR, H. MEICA, HAMAVI, HAMAYRU, HAM. LAUR, HAMABORTS, ... HOGOI...

Karlo Barrentso

URREZKO ASTABELARRIAK

OHORE GARAICO ASTAPOTROEII

Aspaldian horrelako perla bikainik aurkitu gabe geunden: Itsaso tropikaletako txirlatan bakarrik aurki zitezkeela pentsatze-
ra ere helduak ginen. Baina hara non, Bizkaiko Garai herritik,
itsasorik eduki ez arren, ondo biribildutako perla distiratsu hau
heltzen zaigun. Ondo etorria, zer idatzia ematen baitigu.

Bankisur Aulkia. Bai horixe. Centraleko arazoa gertatu
zenetik, orain, badaezpada, guztiak lurlean etzaten dira, aulki-
pean. Zerbaitegatik esaten baitzuen "Tellería" jaunak (itzulpen
libre xamarra): "Tu bi o no tu bi", alegia "Hilk hil bi eta nik
beste bi". Hau ere libre xamarra da, baina kontatu didaten
bezala kontatzen dizuet.

Oraingo honetan sinesten hasiak gara, X. Kintanak bere
hiztegiaren sarreran, hitzaurrean alegia, jarritako "makila bo-
ta", "bekoki kulturala" eta "neskameak oilaskoa Iturrian
dakar mahaira" esaldi haik (ikus XXIV orrialdea) ez zirela
asmakeria hutsak, errealitatean erabiltzen ziren erabiltzen ote
dira orain ere? esaldiak baizik. Dena den, hurrengo edizio
baterako "Bankisur Aulkia" ere hitzaurrean jartzeko eskatuko
diot, ohorezko toki hori merezi duelakoan nago.

Eta besterik ez. Garaiko asto horiek bertako inguruetan belar
gozorik izango dutelakoan ez gara arduratuko lastorik bidal-
tzeaz. Hori bail Hitzen esangura semantikoa kontutan hartzeko
kontseilatuko diegu, tripakominik sor ez dakien. Arrantziak,
jarkatu, goraintziak Bilboko astoen partez! ondo ibili eta gutxi
gastaul.

Ramón Garai



Gernikako Arbola Abeztia atara zuela Garaiko Dantzatetik.
Ibilaldi amaitu ondoren HERRIKO DANTZARIEK SAIO orokorra, Du-
rangaldeko Ezpatadantza dantzatu.

Ondoren - Ohorezko Aurreksua.

Arratzaldeko 6,30 etan. - Aurreksu Lehiaketa, erreglak izeneko mo-
duan, sari hauk banatuko dira:

- 1.º - 2.000 pezeta eta TALLERES SERAFIN eskainitako trofeoa eta txapela
- 2.º - 1.750 pezeta eta BANKISUR AULKIAK eskainitako trofeoa
- 3.º - 1.500 pezeta eta ASADOR GUIURIAK eskainitako trofeoa.
- 4.º - 1.000pezeta.

Aipatutako sariezgainera, beste sari berezi bi egongo dira 40 urtetik go-
rakoentzat hau da, 1.º - 1.000 pezeta eta 2.º - 500 pezeta. Herriko lehen
klasifikatuarentzat, UDAL ETXEKO trofeoa.

Beste partaide guztiak dieta dabe.

EPAILARIAK: ROBERTO BERRIZKOA, MIGUEL GARAIKOA, ZA-
RRABETIA ABADIÑOKOA, ETA AGUIRRE ZORNOTZAKOA
MUSIKA: ALEJANDRO ALDEKOA.

8 etan - DANTZARI DANTZA, Neskak eta mutilak.

10 etatik 3 etara - GAU PASA MARATHON DANTZA MUSIKALA:
IZEKETA ATERA.

EUSKAL PRENTSA BARIK EZ DA EUSKAL HERRIRIK SIN PRENSA EN EUSKARA NO ES POSIBLE EUSKAL HERRIA



Boletín de suscripción

**Harpidedun
berririk gabe,
Euskal Prentsak
ez du
etorkizunik.**

Eta aldizkariok desagertuko balira, ondorio latzak
izango lituzke horrek Euskal Herriko kulturarentzat.
Gure Herriaren ondare eta gure nortasunaren
ezaugarri den euskarak, elkarri aditzeko erabiltzen
dugun tresna horrek, beren atek zabal-zabalik
irakiten dizkioten komunikabide bakarrak galduko
lituzke betirako.

Egoera honi erremedioa jartzeko, zure laguntza
behar dugu.

EGIN ZAITEZ ALDIZKARIOTAKO BATEN EDO
GEHIAGOREN HARPIDEDUN. BETE EZAZU
TXARTEL HAU.

"Prentsa euskaraz" en izenean, mila esker.

**Sin más suscripciones
a la prensa en euskara
no es posible
la supervivencia
de estos Medios.**

Y la desaparición de estas publicaciones
acarrearían unas graves consecuencias para la
cultura de todo el País. El euskara, patrimonio del
pueblo, vehículo nuestro de comunicación, elemento
definidor de nuestra personalidad, perdería así los
únicos Medios impresos en cuyas páginas encuentra
una acogida total.

Para intentar salvar esta situación, necesitamos
tu colaboración.

**SUSCRIBETE A UNA O VARIAS DE ESTAS
REVISTAS. LLENA ESTE BOLETIN.**

En nombre de toda la "Prentsa euskaraz",
gracias.

Izena
Nombre
Kalea
Calle
Herria
Población

ZK
N.º
Bizitza
Piso
Herrialdea
Provincia


- | | | |
|-------------|--------------------------|--|
| ANAITASUNA | <input type="checkbox"/> | Hamabostkaria. Urteko harpidetza: 1.500 pzta.
Publicación quincenal. Suscripción anual: 1.500 ptas. |
| ARGIA | <input type="checkbox"/> | Astekaria. Urteko harpidetza: 2.500 pzta.
Publicación semanal. Suscripción anual: 2.500 ptas. |
| HERRIA | <input type="checkbox"/> | Astekaria. Urteko harpidetza: 2.250 ptas.
Publicación semanal. Suscripción anual: 2.250 ptas. |
| JAKIN | <input type="checkbox"/> | Hiru hilabetekaria. Urteko harpidetza: 1.100 pzta.
Publicación trimestral. Suscripción anual: 1.100 ptas. |
| SASKI-NASKI | <input type="checkbox"/> | Hilerokoa. Urteko harpidetza: 900 pzta.
Publicación mensual. Suscripción anual: 900 ptas. |

X batez jar ezazu harpidetu nahi duzun aldizkaria.
Señale con una X la revista o revistas a las que quiera suscribirse.

Txartel hau bete eta gero bidal ezazu mesedez 495 posta kutzara. Bilbo, PRENTSA EUSKARAZ karta azalean jarri.
Una vez rellenado este boletín, envíelo, por favor, al apartado 495 de Bilbao, poniendo en el sobre PRENTSA
EUSKARAZ.

ORDAINKETA MODUA: Harpidea hartzen duzun aldizkariak zurekin sartuko da harremanetan ordainketa modua
jakin dezazun.

FORMA DE PAGO: Cada revista, a la que se suscriba, se pondrá en contacto con usted para darle a conocer
sus formas de pago.



DIRUA ORDU GUZTIETAN

Ordu guztietan Kutxaren zerbitzuak zure mesedetan daude.

Hemen duzu gure Txatel Berdea. Txartel Berdearekin eragiketa guztiak, diru ateratzea, diru sartzea, etab. edozein ordutan egin dezakezu, gauean edo egunean, lanegunetan edo eta jaiegunetan. Txartel Berdeak ez du ezagutzen jairik.

Erlojua begiratu barik, behar dituzun soluziobideak zeure eskuetan daude:

- Edozein unetan dirua ateratzen.
- Dirua sartzen.
- Zure saldoa berehala ezagutzen.
- Taloi txekeak eskatzen.

KREDITUA EDOZEIN TOKITAN

Bidai ajentzietan, hoteletan, jate-txetan, dendetan, erostetxe handietan.

Bizkaian 2.000 toki baino gehiagotan.

Munduan zehar 2.600.000 tokitan.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartela erakutsirik **NONAHI**, txakur txiki bat ere gabe, erosiko duzu.

Horrela, ez duzu gainean dirurik eraman behar ez eta konturik atera behar.

Gauzez gozatzeko ez duzu itxaron behar. Pagatzeko itxaron behar duzu, gure kreditu osoa duzu eta.

ETA 5.000.000TAKO SEGURU DOHAIN BAT

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartelarekin harantz honantz ibiltzea ez da bakarrik eroso.

Segurua baita.

Abioiez, trenez edo eta itsasuntziz egindako bidaiak txartelaz abonatzen badituzu, zuek eta zeure etxeok

stripuen kontrako aseguru bat duzue. 5.000.000 pztako aseguru hain zuzen. Dena debalde.

Horregaitik ere Bizkaiko Kutxaren Master Charge-a eduki eta erabili behar duzu.

Seguru gaude.

CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

GABONETARAKO :

**EUSKAL TELEBISTA - IRRATI
NAZIONALA**

- . Genozidio kulturala gelditzeko
- . Euskadi Euskal Herria izan dadin

